



EMAKUMEAK ARRAUNEAN

Kontsolazio txandan oraingoz



Larrun Alfonso del Val, errauskailuari barrenak ikusi zizkion aditua

- **Maria Jesus Torres** «Haur hiperaktiboek ikaragarri sufritzen dute, inork ez baititu konprenitzen»
- **Liburu-dendak** Etorkizuneko espazioa irudikatu nahian
- **Net Hurbil** Fukushima laugarren erreaktoreari begia ezin kendurik
- **Javier Olaberri, ingeniaria** «Aktibitate industrial guztiek dute ardura zibila, zentral nuklearrek izan ezik»

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK





Azaleko argazkia:

ENEKO

DORRONSORO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko ekainaren 26a, 2.282. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Miguel Madariaga:** «Ibarretxeren alde egin izana pagatzen ari naiz». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Emakumeak arraunean.** Olatu ona harrapatu nahian. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 5

Pertsonaia

- **Maria Jesus Torres:** «Arreta gabezia dutenak ez dira gaizki hezitako haurrak». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Anarkherriak 25 urte.** Jaungoikorik eta legerik gabe. ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Etxeko kontuak. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Korapiloa** askatzen. EIDER ALKORTA / 21
- **Hiruko txikian** Langile soilak gara. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Galtzaileen egia.** PILI YOLDI / 22
- **Txandan** Bildu eta aurrerapena. JOSU AMEZAGA / 22
- **Zirtak** Arte pornografikoa. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** Galtzaile txarrari jarriak. AITOR SARRIEGI GALPARSORO / 24

Erdiko kaiera

- **Liburu denden etorkizuna.** Arriskatzeta da bide bakarra. UXUA LARRETxea / 25
- **Ipar Korearen historia,** propagandaz eta artez. ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30 • **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Javier Olaberri:** «Zentral nuklearrarena liberalismoari lotutako arazoa da». URKO APAOLAZA / 39
- **Elikadura krisia.** Urritasuna ala espekulazioa? DANIEL UDALAITZ / 42
- **Sarea Josten ekimena.** 37 elkarte getxoztar euskarari tiraka. ZIHARA ENBEITA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Fukushima ehun egun beranduago irakiten darrai. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Kezkak.** SANTI LEONE / 50



“Ibarretxeren alde egin izana pagatzen ari naiz”

Miguel Madariaga | Saltzailea

Protourreko talde zaharrenaren arima.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen Mungiako taxista ohia!

Eta aurretik marinela! Pertsona bakoitzak, mundura jaiotzean, bide bat dauka markatuta. Zelan helduko nintzen ni bestela heldu naizen lekura?

Markatutako bide bat? Ia-ia kartzelara sartu zintuzten eta!

Atarian egon nintzen. Txakur txikirik ez zegoela ikustean zenbaitek proiektua umezurtz utzi zuten, eta hor iraun nuen nik, naufragoak bezala, salbatzera norbait etorri arte flotatzea beste helburu barik.

“Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karamelak...”

Ez nago eta ez nengoen etengabe proiektua saltzera derrigortuta, baina barruan daramat. *Multimillonario* izan nahi baduzu alferrik zabiltza, baina badakizu zer poztasun den Pirinioetara heldu eta gure zaleak bide erdian ahuspez ikustea?

Emozioaren emozioz, malkoak aterako zaizkit...

Nire lanpostutik erretiratuta nago eta egiten dudana soldata barik egiten dut. Proiektu hau nire umea da eta osasuna daukadan artean ez dut inoren esku lagako.

Noren esku dago txirrindularitza dopinarekin ez lotzea?

Oso ahulak gara, eta elkar zapaltzen gabilta, nor itoko. Zergatik ez dituzte beste kiroleetan gurean beste kontrol pasazten? Beste kiroleetan zer dagoen salatzen denean salbatuko da txirrindularitza.

Kontxo, kontxo...

Une honetan ez daukagu sinesgarritasunik eta ez gara batzeko kapaz. Gure lurra ondo abonatuta dago, baina beste batzuen interes eta negozio itzelek dena zapuzten dute. Batzuk ez dute txirrindularitza artezterik nahi.

Badakizu, arrain handiak libre eta txikiei egurra!

Zergatik jartzen zaio positibo eman duenari urte biko zigorra eta ez sei hilabetekoa? Zigorra, zigorra, eta zigorra, eta bitartean ez gara konturatzen zenbat kirolari dauden droga arrunten munduan sartuta sats eginda amaitu dutenak.

Gizarte honen ispilua da, konpai.

Gizarte bezala ere aspaldi gabilta norabide barik. Norabide barik dabilenak ez ei dauka galtzeko arriskurik, baina galdu ezin duena, galduta dago.

Zuk, 2009an, norabidea Ibarretxek markatuko zuela pentsatu zenuen baina...

Ibarretxeren alde egin izana pagatzen ari naiz, baina berriz egin beharko banu, berriz egingo nuke. Hori bai, nik Juan Jose Ibarretxe Markuarturi eman nion babes, ze politika niri ere...

Saltzaileak isilik egoten jakin behar duela...

Niretzat ez dut ezer lortu behar, nire bizimodu konponduta daukat, eta gauzak argi izanez gero zergatik ez ditut esango? Hori bai, beti aurpegira eta albora begiratu barik. ■

• ASTERO GAIA •

Emakumeak arraunean

Olatu ona harrapatu nahian

Txingudiko Badia, Zaragozako Expo, Kontxa, EuskoTren Liga, Gipuzkoako Liga... Nesken traineruen ibilbidea da hori. Alabaina, aspalditik ari dira arraunean; esertoki mugikorrean, bateletan eta trainerilletan, nahiz eta ikusi, orain ikusten ditugun.

ONINTZA IRURETA AZKUNE



ENEKO DORRONSORO

Batelak eta trainerillak bukatu dira. Zumaiaiko arraunlariak gogotik ari dira orain traineruetarako entrenatzen.

“DUELA ZORTZI URTE pentsatzea ere Emakumezkoen Traineru Liga izango genuela... Gogoratzen naiz klubean bertan ere esaten genuela, ‘hartuko dugu mutilen trainerua eta aterako gara probatzera?’”. Amaia Gezalaren hitzak dira, hondarribiarrak (Gipuzkoa) 24 urte dauzka eta 2000. urtean hasi zen arraunean Hondarribiako Arraun Elkartean. Azken hiruzpalau urteetan, nes-

ken arraunak booma bizi duela esan diogu eta berak gauzak bere tokian jarri ditu: “Orokorrean, litekeena da neska arraunlari gehiago egotea orain, nahiz eta gure klubean ez dugun gorakadarik igarri. Euskal Herrian trainerua da arraunaren erreferentia eta badirudi orain hasi garela neskak arraunean”. Orain telebistaz ikusten ditugu, lehen ez bezala.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Getaria-Tolosako arraunlariak Kontxan. Batzuetan bi klubek bat egiten dute trainerua osatu ahal izateko eta beste batzuetan klubak handik eta hemendik ekartzen ditu arraunlariak ontzia bete ahal izateko.

Euskadiko Arraun Federazioa 1985ean sortu zen eta ordurako neskek arraunean egiten zuten. Espainiako Federazioak 1980ko arraunlari nesken emaitzak ditu jasota eta tartean gipuzkoarrak ageri dira. Emakumeen arraunean trainerua oso gauza berria da, eta orain gutxi arte esertoki mugikorrean, bateletan (lau arraunlari eta patroia) eta trainerilletan (sei arraunlari eta patroia) ibili dira. Kantauri itsasoan, konparaziorik gabe, arraunak Gipuzkoan dauka tiradizorik handiena eta neska kopuruaren gorakada nabarmena izan da herrialde horretan. Gipuzkoako Federazioak, 2003an, nesken 86 lizentzia egin zituen. Aurten, 276 egin ditu, esertoki mugikorra eta fijoak kontuan hartuta.

Emakumeen I. Txingudi Bandera, abiapuntua

Txingudiko Badia kari, 2005eko irailean festa egin zen Hondarribian eta neskak traineruan aritu ziren. Hondarribiarrek Txingudiko Bandera hura aldarrikatzen dute emakumeen lehenengo traineru lehiaketa gisa. Amaia Gezalak gogoan du 2005eko uda: “Galiziarak, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak aritu ginen. Udan entrenatzen ibili ginen. Ez dakit orduko irudirik dagoen, baina ikusteko modukoak izango dira”. Hainbat urte segidan antolatu zen bandera hura.

2008an, Eusko Jaurlaritzak galdetu zien arraunlarietara Zaragozako (Espainia) Expo

Gipuzkoako Arraun Federazioak, 2003an, nesken 86 lizentzia egin zituen. Aurten, 276 egin ditu, esertoki mobila eta esertoki fijoak kontuan hartuta

erakusketarako trainerua prestatuko zuten. Maika Tameron han izan zen. Errenteriako (Gipuzkoa) Hibaika Arraun Elkarteko kirolari honek 18 urte daramatza arraunean. Zaragozako esperientzia polita izan zela gogoan du: “Tolosako, Errenteriako, Pasai Donibane eta Getariako hainbat arraunlari elkartu ginen Pasai Donibanen Zaragozako prestatzeko. Bazirudien Gipuzkoan baze-goela potentziala trainerutan gauza gehiago egiteko. Urte hartan bertan Kontxan egin zen estropada. Orduan hasi ziren klubak mugitzen, neskak bazeudelako”. Azken urte hauetan, traineruak abiada hartu du, gelditzeko asmorik gabe, neskek beraiek irmo esan digutenez. Beste kontu bat da, orain arte gizonen kirola izan den horretan hastapenak nolakoak izan diren, eta etorkizuna nola marrazten duten.

Teloneroak

Hitz hori behin baino gehiagotan entzun diegu emakumeei eta baita gizonezko entrenatzailearen bati ere. Zumaiako neskak entrenatu izan dituen Joxeba Aristik hala esan digu: “Beti gizonen atzetik datoz. Euri asko egin beharko du horrelako zerbait esateko: ‘Gaur emakumeen estropada dago Zarautzen’”. Hau da, neskak trainerutan hasi dira, baina gizonezkoen azpiegiturak, lehiaketak, telebistaz emititzeko muntaiak

Iñigo Alkain, Gipuzkoako Arraun Federazioko presidentea "Arrauna oraindik oso matxista da"

2008an aukeratu zuten Iñigo Alkain Gipuzkoako Arraun Federazioko lehendakari. Orduan ari zen nesken arrauna indarra hartzen, batik bat traineruetan. Alde batetik emakumeak ditu bultzaka, berdintasunerako pausoak eman ditzen eskatuz, eta bestetik, hainbat gizon, batez ere klubetako eta federazioko ordezkariak, emakumeen eskakizunak gehiegizkoak direlakoan zirika.

Aspalditik ari dira neskak arraunean, baina azken urteotan traineruaren kontuarekin indarra hartu du. Zer moduz zabiltza?

Nire apustua da nesken arrauna bultzatzea federazioan. Genero berdintasunaren gaiarekin sentsibilizatu nago. Baina oso zaila da hainbat klubetako eta federazioko zuzendaritzarekin lan egitea. Arrauna oraindik oso matxista da, eta horrelakoak entzuten ditut: "Mutile-

kin arazo bat daukagu eta neskekin 22", edo "gizonen kirola egiten hasi dira emakumeak".

Zu zeu zer moduz moldatzen zara nesken arrauna kudeatzen?

Lehenengo urtean [2009an] oso gaizki egin nituen gauzak. Bigarren urterako kritikak entzunda nengoen eta hobeto moldatu nintzen. Esate baterako, neskentzako arropa eskatzea bera berria izan zen niretzat. Lan horiek nik egitea baino, nahiago dut neskek beraiek esatea zer behar duten.

Haiei beharren berri nola daukazu?

Entrenatzaileen bidez. Nesken arrauna indarra hartzen ari dela ikusita federazioko zuzendaritzan emakumeren bat egotea proposatu nuen. Erantzuna hau izan zen: "Horrela ondo gaude". Berriz ere

saiatuko naiz, zeren ni ibiltzen naiz emakumeen arrauna kudeatzen, baina diferentea da eta zaila egiten zait. Nahiago dut zuzendaritzan emakumeren bat egotea.

Foru Aldundiarekin nolako harremana daukazue?

Aldundiak apustu berezia egin du arraun femeninoaren alde eta ni ados nago horrekin, baina hori federazioko zuzendaritzan esplikatzeara... Dena dela, haien irizpideak segitzen ez baditugu ez digute dirurik ematen, eta ni ados nago erabaki horrekin.

Kluben jarrera nolakoa da?

Gipuzkoako hainbat klubi meritu handia ematen diet, lan ederra egin dutelako. Sentsibilitatea erakutsi duten klubek nesken taldeak dituzte eta besteek ez. Badira klub atzerakoiak.

eta beste baliatzen dituzten neurrian. Aparteko lehiaketak egiteko kirol garestia da arrauna. Telonero izatearen adibide bat eman digu Maika Tameronek: "Kontxan, igandeko finala oso tristea da. Neskak portura sartzen garenean ez dago inor, denak mutilena ikusteko prestatzen ari dira. Larunbata berriz, sailkapeneko, oso polita da, jende asko joaten da ikustera eta gu bakarrik ari gara arraunean".

Tameron erreteriarrrak kexa eta aldarrikapen asko ditu egiteko, baina garbi utzi du nola edo hala traineruan hastea izan dela

garrantzitsuena. Kontxako Bandera eta EuskoTren Liga telebistaz ematen dituzte, eta gehiago edo gutxiago gustatu, pantaila txikian ageri dena bada norbait. Zumaiaiko arraunlari batek ederki azaldu digu telebistaren eragina: "Kontxara joan eta kristoren kamiseta gorri piloa ikusten duzu. Bateletan gehienez ama eta lehengusua joaten dira ikustera". Hedabideok, orokorrean, klubetako telefonoak astintzen omen ditugu EuskoTren Liga, eta batik bat Kontxa iritsitakoan eta neskek —eta mutilek ere bai— dagoeneko bateletan eta trainerilletan banderak eta txa-

eco festes
Jaietarako bitarteko ekologikoak!

Euskal Herria

93 837 15 48
www.ecofestes.com

ECO-30 ECO-50 ECO-60 ECO-100

1993an %6,3 eta 2009an %20,5

Gipuzkoako Arraun Federazioko lizentzia portzentajeak dira izenburukoak. Alegia, 1993an Gipuzkoako arraunlari federatuen ehuneko 6,3 zen emakumezkoa eta 2009an portzentajea ehuneko 20,5ekoa zen. Igoera nabarmena da; gizonetzkoekin berdintzeko falta den aldea bezalaxe.

Gipuzkoako arraun kontuez, eta bereziki emakumeen arraunaz, badaki zerbait Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari nagusiak. Harreman estua du arraun federazioarekin eta EuskoTren Liga antolatzen duen Traineruen Kluben Elkartearekin. Ugarteburuk dioenez, kirol federatua gizonen gizonentzako diseinaturik dago eta ondorioz, kirol gehienetan gizonak gehiago dira emakumeak baino.

2004an arrauna birmoldatzeko egitasmoa jarri zuten abian, garbi edukita, besteak beste emakumeen arrauna sustatu nahi zutelak. 2009an Gipuzkoako emakumeen arrauna (fijoa eta mugikorra) berrantolatzeke egitasmoa jarri zuten abian. Hamar klubetako eragileak elkarriketatu zituzten, arazoak, eragozpenak eta beharrak atzeman asmoz. Lehiaketatako egutegi eta ordutegiez galdetu zieten, ontzien eta osagarrien materialak eta neurriak egokiak zitzaizkien ala ez, klubetako instalazioak, aldagelak, entrenamendu ordukin ados zeuden ala ez. Emaitez ezustekorik eragin al zieten galde-

tu diogu Ugartebururi: "Ez. Beste kirolekin gertatu denarekin badugu esperientzia. Gauza logikoak esaten zituzten". Berritasuna EuskoTren Ligaz zuten iritzia zen. Gipuzkoa osoak selekzio bat osatzen zuenez orain arte, neska gipuzkoar askok lehiatik kanpora geratu behar zuten eta arraunlariak hori ez zuten batere gustuko. Foru Aldundiak hasieratik (2009tik) babestu du diruz EuskoTren Liga, nesken arraunarentzako erakusleho bikaina delakoan. Alabaina baldintza bat ezarri zuen horretarako: Gipuzkoako Liga ere antolatzea. Bigarren horrek ziurtatuko zukeen (eta du) gora egiten ari den Gipuzkoako harrobiak lehiatu ahal izatea. Aurten, Gipuzkoako Traineru Ligan bost klub gipuzkoarrek (Zumaia, Getaria-Tolosa, Orio, Pasai Donibane eta Hondarribia) eta bizkaitar batek hartuko dute parte.

Emakumeen goi mailako kirolak ikusleak erakartzeko dituen zailtasunak azpimarratu ditu Ugarteburuk: "Arrazoiak asko dira. Adibidez, saskibaloian saskiak gizonen neurri berean daude. Ikuskizuna bilatzeko gauza batzuk aldatu beharko dira. Egunen batean probatu beharko litzateke ea emakumeen estropadak bere horretan zenbat jende erakarriko lukeen". Ildo horretatik, EuskoTren Ligan eta Kontxan telebista egotea alde handia dela dio: "Zorionekoa telebista; beste hainbat arlotan bezala, ez bazaituzte ikusten ez zara existitzen".

pelketak jokatu dituzte. Tameronen ustez, traineru lehiaketak presaka egin dira eta nahaste-borrasteak egon dira. Akatsak aipatzen hasita zerrenda luzea da: Kontxako Lehenengo Estropadan oso itsaso txarra zegoen eta hala ere jokatu egin zen; sailkapena larunbat arratsaldean egiten dute eta finala igande goizean, bi saioak gertuegi daude. EuskoTren Ligak hirugarren urtea izango du aurtengoa eta beti izan dira gorabehera handiak. Ane Pescadorrek 19 urte ditu eta erreteriarra izan arren, Pasai Donibaneko (Gipuzkoa) Koxtapen egiten du arraun. Oso kritikoa da EuskoTren Ligarekin: "Brometako Liga da. Halamoduz eta azken momentuan hasi zen, telebistan erakusteko emakumeak arraunean egiten dugula. Onen liga dela diote, baina herrialdekako selekzioka parte hartzen badugu hor ez daude onenak. Ez dago benetako lehiarik eta ikusleak gurea serio ez hartzeko arriskua dago". Iaz neskek ernegatu zituen beste erabaki bat: mutilen distantzia erdia prestatzen dute neskek lehiaketarako, bada, iazko Euskadiko Txapelketan federazioak ustekabeen erabaki zuen neskek mutilen distantzia bera

egitea. Kirol ikuspegitik ez dauka ez hanka ez buru.

Zer dago egiteko?

Zer premia dituzue? galdetu diegu neskei. Normaltasuna eskatzen dute arraunlariak, adibidez egutegi finkoa izatea, orain arte ez bezala, denboraldian zehar zer lehiaketa, nolakoak eta noiz izango dituzten jakitea. Amaia Gezala hondarribiarra harago doa: "Arraun egin nahi dugu eta ligak normaltasunean jokatu, disfrutatu eta eztabaidetatik aparte ibili. Nik ez dut nahi EuskoTren Ligak eman diezadakedan publizitatea, nik lehiatu egin nahi dut".

Entrenatu, eta batez ere lehiatu.

Neskek kexu dira antolatzaileek egindako hanka-sartzeaz, bigarren mailakotzat hartzeaz, kontu gutxirekin ibiltzeaz... Hala ere, bestelako gauza askotan neskek beraiek ere ez dituzte gauzak argi, eta sorreraz maskulinoa den kirolean moldaketa asko egiteko daude, edo behintzat galderak egiteko. Neskek mutilek egiten duten distantzia bera egin behar al dute? Mutilen eta nesken altuera, pisua eta gorpuzkera desberdinak direla kontuan hartuta, ontziak neurri berberak izan behar al ditu? Eta palak?

"Emakumeoi galdetu behar zaigu, adibidez, nola nahi ditugun Kontxa eta EuskoTren. Erabakiak klubek hartzen dituzte, ia denak gizonetzkoak dira eta nahiko helduak"
MAIKA TAMERON, HIBAIKAKO ARRAUNLARIA

Arraunean bai, erabaki-guneetan ez

Erreportajea prestatzeko Traineru Kluben Elkartek antolatzen duen EuskoTren Liga-ko zuzendariarekin hitz egin dugu, Gipuzkoako Arraun Federazioko lehendakariarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendariarekin. Arraunlarien telefonoak lortzeko klubetako lehendakariengana eta entrenatzaileengana jo dugu. Denak dira gizonak. Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko kirol zuzendariak dioen bezala, gizonak gizonentzat antolatutako kirolean dabilta emakumeak, eta arraunean egiten badute ere, erabaki-gune garrantzitsuenetan ez daude.

Iazko Kontxako Bandera bukatu eta laster, Udalak klubetako zuzendaritzako hainbat kide eta arraunlari bilerara deitu zituen. Keinu hori asko gustatu zitzaion Maika Tameroni: “Emakumeoi galdetu behar zaigu, adibidez, nola nahi ditugun Kontxa eta EuskoTren. Erabakiak klubek hartzen dituzte, ia denak gizona bezala dira eta nahiko helduak. Klubaz arduratzen dira, baina ez hainbeste nesken arraunaz. Kontxaren ondoren deitu egin ziguten gure iritzia jasotzeko eta hori oso ondo dago”. Klubak aipatu ditu Tameronek, baina Hibaikako zuzendaritzan lau emakume eta lau gizon daude.

Erabaki-guneetan gizon-emakume balantza oso alde baterakoa dela diotenean, klubetako ez baino maila handiagoko antolaketa erakundeaz ari dira. Duela bost urte, Tameron Kantauriko Arraun Elkartek kudeatzen duen Ligan Hibaikako ordezkari gisa hasi zen eta arraro begiratzen ziotela dio, “haiek baino gazteagoa eta neska nintzelako”, nahiz eta ez izan neska bakarra. Errespetua irabazi duela dio eta orain, haiek proposatuta, zuzendaritzako idazkari da. Erabaki-guneetan egotea zail ikusten du: “Nirea adibide isolatua da, ligetan partaidetza aldetik mugimendu pixka bat ikusten da, baina ez dakit zergatik federazioan zaila ikusten dut. Bestalde, guk ere azkarragoak izan behar dugu, klubetan ardurak hartu behar

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Galiziarra Kontxa. Finalean jende gutxi izaten da kaian, mutilak ikusteko prestatzen delako jendea. Sailkapen egunean berriz (argazkian), neskak dira protagonista.

ditugu eta ez dugu hala egiten. Federaziora eta bestelako tokietara iristeko klubetatik hasi behar da”. Elkarriketatu ditugun bi arraunlari gazteenek ez dauzkate saltzeko kluba eta entrenatzailea. Gezalak hala esan digu: “Entrenatzaile eta klubetako ordezkari emakumezkoak ez egotea baino arazo handiagoa da Gipuzkoako mailako batzarretan ez egotea, horietan hartzen dira erabaki garrantzitsuak”. Ane Pescadorrek, berriz: “Gure klubean badago emakumeen ordezkari. Entrenatzailea gizona da, baina soberan daki nola bizi dugun arrauna neskak, eta bera da aurrea gure aldeko errendikazioak egiten”.

Ane Pescadorrek, Koxtapeko arraunlariak, 19 urte dauzka eta badaki bera baino zaharragoek egoera bidegabeagoak ugari bizi izan zituztela: “Gauzak asko aldatu dira, lehen ibilitako neskek kontatzen digutenagatik. Adibidez, Espainiako Txapelketarako mutil infantilak eta neska seniorrak sailkatu, eta neskak Txapelketara neskak ez zituzten eraman”. ■

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao

☎ 94 423 1500

Faxa: 94 424 3947

eudel@eudel.net

www.eudel.net

Maria Jesus Torres

«Arreta gabezia dutenak ez dira gaizki hezitako haurrak»

Duela hamalau urte Maria Jesus Torresek iragarkia jarri zuen prentsan haur hiperaktiboak zituzten beste gurasoekin harremanetan jartzeko. Sei ama elkartu ziren kafetegi batean. Horrela sortu zen ADHI Arreta gabeziaren hiperaktibitate nahasmendua duten neska-mutil eta senitartekoen Nafarroako elkarte, Espainiako Estatuko lehena. 500 bat bazkide ditu egun.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Nola hasi zen elkarte hau?

Prentsan iragarki bat jarri nuen haur hiperaktiboen gurasoekin harremanetan jartzeko eta sei ama bildu ginen. Bilera hartara ez genuen batere bereizgarririk eraman elkar ezagutzeko; ez halako arroparik, ez gauza bat besapean... eta ez zen beharrezkoa izan. Sartu ahala bagenekien nortzuk gentozen hitzordu horretara. Gure artean hasi ginenean elkarri kontatzen zer nolako biziarenak genituen etxean, oso mesedegarria, oso terapeutikoa izan zen denontzat. Beste pertsona batzuei antzeko gauzak gertatzen zitzaizkiela eta zure akats berdinak egiten zituztela ikustea oso onuragarria izan zen denontzat. Lehenengo bilera horren ostean, etxera itzulitakoan, lehen aldiz ikusi nuen ene alaba haur berezi bezala, arazo bezala baino. Sekula ez naiz damutuko. Hasieran hamabost egunean behin biltzen ginen autolaguntza gaiak jorratzeko eta handik gutxira elkartearen eraketa erabaki genuen. Urrian hasi ginen paperak egiten eta urtarilerako dena egina zegoen. Ordurako autolaguntza taldeez gain, haurrentzako trebetasun sozialak lantzeko taldeak ere abian ziren. Nire helburua zen fundazio bat eratzea, gurasoek, nik bezala, ezjakintasunarengatik egiten dituzten akatsak saihesteko.

Zure alabaren egoera izan zen zure motorra. Txiki-txikia zenetik hasi ziren arazoak?

Lehen urteak oso gogorak izan ziren eta, izan ere, neure burutik ia erabat ezabatu ditut. Baditut beste bi seme, nagusia 37

urtekoa eta bigarrena 31koa. Ziur nago bigarrena ere AGHN [Arreta Gabezi, Hiperaktibitate eta Inpulsibitate Nahasmendua] bat dela, baina ez dago diagnostikatu. Oso argia da, lanean oso ongi dago eta primeran moldatzen da toki guztietan. Baina txikia, aldiz, ez da inoiz onartua eta ulertua izan. Jendeak beti errudun jo izan du. Bere trastornoak sortarazten zituen arazo guztien errudun egin izan dute beti. 4 urte zituela ikastolan esan zidaten gelako azkena zela. Nire erantzuna izan zen norbaitek izan behar zuela. Pediatrak neurologoarengana bidali gintuen eta han egin zioten diagnostikoa. “Hiperkinetiko” zela esan zidaten,

Nortasun agiria

Maria Jesus Torres Mendicoa elbetearrak 59 urte ditu eta ADHI elkarteko sortzaile eta lehendakaria da. Idazkari ikasketak egin zituen Donostiako Josefinen moja ikastetxean, baina amaitu baino lehen familiak zuen dendan lan egiteko itzuli behar izan zuen herrira. Duela hogeita hamazazpi urtetik Elizondon bizi da, ezkondua dago eta bi seme eta alaba baten ama da. Neskak arreta gabeziaren trastorno du. Goizetan eta asteburuetan garbiketa lanak egiten ditu ogibidez. Arratsaldetan elkartearen egoitzan eta hamaika herri eta ikastetxetan ibiltzen da haur hiperaktiboen guraso eta irakasleekin lanean, informazioa emanez, boluntario. Ama adoretua, ezbaierik gabe.





garai hartan hitz hori erabiltzen baitzen. Denbora aurrera joan ahala, arazoak gero eta handiagoak egin ziren. Halako haur batekin zaudenean zer gertatzen ari den ulertu gabe, errieta egin eta zigorrak jarri baino ez duzu egiten. Ez nekien zer egin, nola jokatu. Aldian behin lehengusina bati deitzen nion telefonoz eta negar egiten nuen.

Ene alaba 8 urterekin ikaragarritzko depresioan erori eta 11 urte bete arte oso burumakur eta abaildua egon zen. Gainera psikologo batek esan zidanarengatik blokeo psikologiko bat izan nuen nik eta bi urtez ezin izan nuen ene alaba ukitu. Hesi handi bat sortu zen gu bion artean. Bera deprimi-tua zegoen eta nik ezin nuen ukitu eta besar-katu. Berak nire arbuioa sumatzen zuen. Adibidez, biak sofán eserita geundela, nahi gabe gure eskuek elkar ukitzen bazuten, segituan kentzen genituen, deabruak ukitu-ko baligu bezala. Orain sentitzen dut ezin izan niola eman berak behar zuen maitasuna. Bi urtez terapia egin behar izan nuen Iruñean hori gainditzeko. Errudun sentitzen nintzen eta sentitzen naiz egun ere. Psikologo hark esan ziguna izan zen blokeo horren jatorria, baina ez dut gogoratzen zer zen, nire burutik erabat ezabatu egin baitut. Denborarekin hesi hori desagertu zen baina

Diagnostiko beharra

“Begiratu hutsean ezin da esan haur batek trastorno hori duenik.

Diagnostikoa egin behar da. Gurasook nabari dugu lehenbizi eta gero ikastetxean, eskakizun akademikoak zenbat eta handiagoak izan, trastornoaren sintomak orduan eta gehiago ateratzen dira. Gauzak antolatu, ordenatu, aurreikusi, denboran kokatu... Ahalmen horiek ez dituzte berezkoak, baina landuz gero, ikas ditzakete”.

orduan berandu zen eta berak ez zuen ni hurbiltzea nahi. Elkarbizitzarekin leundu da egoera latz hori eta 14 urterekin pasa zuen krisi sakon eta gogorrean pixka bat lagundu ahal izan nion, bederen.

Nolakoak dira haur eta gazte hauek?

Oso zaila egiten zaie arreta jartzea zuk nahi duzun gauza horretan. Haien burua antena paraboliko baten antzekoa da: informazio pila jasotzen du, baina ez du deus atxikitzen. Estimulu guztiei kasu ematen diete, bereizteko gauza ez direlako. Lagungarria izaten da mezua zentzumen batetik baino gehiagotik aldi berean sarraraztea: ikusmena, entzumena eta baita ukimena edo usaimena ere ahal denean. Ulertu behar ditugu eta eskaini haiek ez dituzten egitura mentalak edo funtzio exekutiboak. Ikaragarri sufritzen dute, inork ez baititu konprenitzen. Pentsatu gabe jokatzeko dute eta horrek ondorio tamalgarriak ekarri ohi dizkie: zigorrak, errietak, nota txarrak... Baina aldi berean haiek ez dakite zer gertatzen ari den, non dagoen hutsa eta aldioro galdetzen dute: “Zer egin dut nik orain?”. Ondorioetan pentsatu gabe egiten dute dena eta gainera ez dute ikasten. Behin eta berriz errepikatzen dituzte jokamolde okerrak. Presio ikaragarria jasaten dute eta horrek guztiak askotan tristezia eta depresio egoeretara era-

Zenbakiak

Familia batean nahasmenduak jotako haur bat baino gehiago egon daiteke. Nafarroako elkarteak batzuk dira nahasmendudun bi eta hiru ume dituztenak eta bat bada jotako lau ume dituenak. Nafarroan 3.000 bat izan daitezke AGHN edo Arreta Gabezi, Hiperaktibitate eta Inpulsibitate Nahasmendua dutenak, baina 500 baino ez daude diagnostikatuak. Guztien %5 eta %7 artean. Erdiek, gutxi gorabehera, elkartearen laguntza jasotzen dute. Estatistiken arabera ikasgela bakoitzeko AGHN duen haur bana dago.

maten ditu. Batzuek 8 urte motzekin hil egin nahi dutela esaten dute. Nerabetasunera heltzean galdera gehiago egiten dute, zer gertatzen den haiekin, zergatik diren desberdinak... Hori dela eta behar-beharrezkoa da haiek jakitea badela toki bat non ulertuak izanen diren, baloratuak eta gauza asko egiteko bidea zabalduko zaiena. Hasieran burumakur, nekatu eta triste kara etortzen dira. Denborarekin hori aldatu egiten da eta alaiago datozela ikus daiteke. Hori oso atsegingarria da. Arratsaldero 70 haur eta gaztetxo baino gehiago etortzen dira elkarteak antolatutako saioetara.

Nolakoa da egunez eguneko bizimodua etxe barrenean?

Haurrak ez baditu eguneroko ohiko zereginak bereganatu (jantzi, gosaldut, hortzak garbitu...), eguna latza izan daiteke hasieratik. Beste haurrak baino ordu bate edo ordu eta erdi lehenago jaiki beharko da ohetik eskolara garaiz iristeko. Lehen minututik hasiko zara zu bere zereginak egiten: zuk jantziko duzu, gosaria ahoan sartuko diozu... Hasten dira, adibidez, galtzerdi bat jartzen eta edozein gauzarekin despistatu. Horrela, bigarrena jartzen dutenerako ordu erdia joan da. Komunera joan eta ahaztu egiten zaie hortzak garbitzera joan direla. Eta gauean segun eta nola iristen diren kaletik momentu txa-

rrak ere pasatzen dira. Amek, batez ere, pasatzen dugu gaizki. Honengatik da laguntza horren beharrezkoa. Haurren jokamoldeak aldatzeko teknikak ikasi behar ditugu gurasoak. Txikiak direnean behar gaituzte eta jakin behar dugu maitasuna eta diziplina batera ematen. Lehen urteetan gaizki egin nuen guztia ikustea da gogorrena niretzako. AGHN izateagatik alabak egiten zuen guztiarengatik errieta egitea zen nire erantzun bakarra.

Hori onartzea zaila izanen da gurasoentzat...

Batzuek ez dute hasiera batean onartzen eta ukazioa baino gauza okerragorik ez da. Gurasoei, hala ere, denbora eman behar zaie hausnarketa egiteko eta egoera onartzeko. Egia esan haur hauek fisikoki oso normalak dira, horregatik batzuetan kosta egiten da buruko nahasmendu bat dutela sinestea, baina ebidentzia zientifiko nahikoa dago gaur egun hau existitzen dela egiaztatzeko. Medikuek dira diagnostikoa egin eta tratamendua jarri behar dutenak. Dena den, gaur egun oraindik, trastorno hau existitzen ez dela dioten profesionalak aurkitzen ditugu osasun alorrean eta, bereziki, irakaskuntzan. Presio soziala ikaragarria da, horregatik elkarrekin oso lagungarri egiten zaio guraso askori: hemen kontatzen ahal dizkizute egunerokoan gertatzen zaizkien gauzak kuestionatuak izan gabe eta horrek anitz laguntzen du, askotan isildu behar dituztelako. Elkarteak sortu baino lehen inork ez zigen esaten zer egin behar genuen. Egiten genuenak ez zuela ezertarako balio, besterik ez genekien. Arazo handi bat genuen eta etxera joanda, hor zinen zu, lau hormaren artean, eta arazoa zurekin.

Nola egiten zaio aurre kontu horri?

Gizarte trebetasunak lantzen dira oztopo hauek gainditzeko. Laguntzarik ez dutenek ahal bezala ikasi eta gainditzeko dituzte ozto-

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



AZKEN HITZA

Presio soziala

“Baldintzarik gabeko maitasuna eman behar zaie. Haur hauekin bizitzea zaila da, baina egia da, bestalde, batzuetan etxean sortzen dituzten arazoak baino garrantzitsuagoak direla guretzat kanpotik, gizartetik, datozkigun mezu negatiboak. Presio soziala ikaragarria da. Mundu guztiak erakusten dizu nola hezi behar dituzun zure seme-alabak. Zenbat aldiz aditu behar izan dugu gaizki hezitako haurrak direla, guk asmatutako kontua dela, berehala pastilla ematen diegula jasaten ez ditugulako, oso guraso permisiboak izan garela eta orain ezin ditugula maneiatu edo bi zaplaztekorekin hori konpontzen dela... Halakorik esaten duenak ez daki zer den trastorno hau eta ez daki zer nolako oina-zea eragiten dien gurasoei eta, bereziki, haurrei”.

poak, asko sufrituta. Nahasmendu hau ez da kontu berria. 1902an lehen aldiz deskribatu zen genetikoki transmititzen den gaitz hau. Gertatzen dena da lehengo garaietan eskakizun akademiko eta sozialak desberdinak zirela eta 14 urterekin graduatu gabe ateratzen bazinen eskolatik ez zenuen arazorik izaten lana aurkitzeko. Orain haienztzat dena askoz ere zailagoa da. Dena den, ez da ahaztu behar arazo honek ez duela zerikusirik ahalmen intelektualarekin. Izan ere, ahalmen handiko neska-mutilak ere badira hauen artean. Edozein modutan ere, haiengan sinetsi behar dugu eta ez ahaztu gure laguntzarekin aurrera aterako direla. Etxean maitasuna aurkitzea ezinbestekoa zaie, kanpotik mezu negatibo aski daukate eta. Haien gurasoen gustuko izan nahi dute gauza guztien gainetik. Onartuak izan nahi dute. Edonolakoa izanda ere maitatuak direla sentitzea oso garrantzitsua da, baina gurasook ez dakigu askotan nola jokatu behar dugun. Egun batean “hiperaktiboa naiz eta zer?” esan dezaten da nire helburua. Laguntza ematen bazaie, haiek ez

Euskara

Elkartean euskarari oso trataera eredugarria ematen diote. Lanean diharduten sei profesionaletatik erdia euskaldunak dira. Eskaintzen diren programa nagusiak eta terapia instrumentala ere euskaraz egin daitezke. Horrez gain lan egiteko erabiltzen dituzten materialak euskaratu dituzte urte hauetan”.

dituzten egiturak ematen bazaizkie, oso emaitza onak atera daitezke.

Ikus daiteke nondik datorren herentzia?

Kasu batzuetan bai. Familian bat edo bestea ikusten da. Gure etxean nahiko argi dago hiperaktibitatea senarrarengandik hartu dutela, gel-dirik egon ezina, eta inpultsibitatea, aldiz, niregandik. Hiperaktiboak ez dira geldirik egoten, baina hori ere positiboa izan daiteke ongi bideratzen bada. Oso aktiboak dira berez eta bestelako trebeziak ere badituzte. Badira batzuk harreman publikoetarako oso onak direnak, adibidez. Askok mugitzea eta bidaiatzea eskatzen duten lanbideak bilatzen dituzte eta bikain sentitzen dira. Horretara iristeko lan ikaragarria egin behar da. Beste arazo bat da arreta gabezia, nahiz eta kasu anitzetan elkarrekin joan biak. Guri, aita-amei, dagokigu baliabideak bilatzea eta gobernuetara erakundeak, aldiz, soluziobideak ematea. Nik politikari guztiei oso inbertsio ona garela esaten diet: orain laguntza emanez gero, etorkizunerako arazoak saihestu eta hiritar normalak eta langileak izanen dituzte. ■




Donostia

Liburu azoka uztailaren 1etik 17ra, Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



► Pedro Prieto, energia krisian aditua

Formazioz ingeniari teknikoa den madrildar hau, urte luzez industriaren ohiko bideak urratu eta gero, orain dela hamarkada bi hasi zen erregai fosilen agortzeaz kezkatzen. Espainiako Energia Baliabideen Ikerketarako Elkartearen presidenteordea da, eta petrolioaren gailurra aztertzen duen ASPO europar erakundeko kidea.



► Neskak arraunean, kontsolazio txandan oraingoz

Txingudiko Badia, Zaragozako Expo, Kontxa, Eusko Tren Liga, Gipuzkoako Liga... Nesken traineruen ibilbidea da hori. Alabaina, aspalditik ari dira arraunean; banku mugikorrean, bateletan eta trainerilletan, nahiz eta ikusi, orain ikusten ditugun.



► Petti

Musika Zuzenean egitasmoak Elorrión antolaturiko musika jaialdiak Euskal Herriko hainbat bakarlarik bildu zituen, Berako Petti tartean. Bere kanta pare bat jotzeaz gain Gose taldearekin abesti bat eskeini zuen.



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Tolosako Gipuzkoa Indoor Karting-en 2 lagunentzako sarrerak

Jaungoikorik eta legerik gabe

Garai gatazkatsuak bizi zituen Euskal Herriak duela 25 urte. Sormena eta elkartasuna baliatuz, gazteek aurre egiten zioten krisialdiak eta errepresioak beltzez tindatutako etorkizunari. Pirata zaharrek eta punk gazteek elkarri ematen zioten bostekoa. Ordukoa da euskal izaera antiautoritarioaren gaineko entsegua: Marc Legasse eta Jakue Pascualen Anarkherria (Txertoa, Donostia 1986).

Testua eta argazkia:

ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN



Jakue Pascualen hitzetan (irudian), “gurea beti izan da herri antiautoritarioa, estatu bik zapalduta dagoen herria delako”.

1986 URTEAREN AMAIERAN, *Egin* egunkarian agertutako artikuluko batean, Marc Legassek “KAS ala hil” (kontrabandoa, anarkismoa, separatismoa) bere lelo zaharra berreskuratu zuen. Bertan plazaratutako tesiak bilduz, anarkismo eta separatismo haiek artean sortu berria zen autonomia gaztearekin (gazte-txeak, irrati libreak eta abar) eta punk mugimenduekin uztartzen saiatu zen Jakue Pascual, *Beltza, berdea eta zuria* izeneko beste artikuluko batean. Jaioa zen euskal nortasun matxinoaren gaineko hausnarketa berri bat, ondoren *Anarkherria* liburuak jasoko zuena. “Anarkismoa eta separatismoa lotzen zituen erreferente hura kristorena zen guretzat, garai haietako mugimendu berrietan sartuta geundenontzat. Punka zen, bestaldetik, guretzako beste erreferente garrantzitsu bat krisialdia ulertzeko: lan merkatutik ez eta gure belaunaldikook kalean ginen; tabernetan ezagutu genuen elkar eta bertan hasi ginen hainbat proiektu

“Elkarkidetza beharrezkoa zela azpimarratu nahi genuen. Denok salbatuko gara edo inor ez da salbatuko. Norberaren autonomia errespetatuz, aldean arteko harremanak garatu zitezkeen”

JAKUE PASCUAL, ANARKHERRIA

eratzten. Testuinguru hartan eutsi nien Legaseren ideiei, mugimendu autonomo gaztearen sentsibilitatearekin harremanetan”, azaldu digu, 25 urteren ostean, Jakue Pascualek.

Legassek Pascual zoriondu zuen eta elkarlanari ekin zioten; horrela sortu zen *Anarkherria*. Erresistentziaren inguruko hainbat tesik osatzen dute testua. Euskal izaera antiautoritarioaren existentzia da haien artean nagusia. “Liburua egin genuenean Tejeroren estatu kolpetik gentozen, ZEN (Zona Especial Norte) Plana abian zegoen eta ez zegoen poliziak hormaren kontra jartzen ez gintuen egunik. Gure burua subjektu erreprimitutzat jotzen genuen heinean, hasi ginen nazio arazoa geureganatzen. Ez genuen ideia independentista

argirik baina euskaldunak eta gazteak ginelako erreprimitzen gintuztela ikusi genuen. Hortik dator *Anarkherriaren* tesi nagusia: gurea beti izan da herri antiautoritarioa. Eta zergatik da antiautoritarioa? Estatu bik zapalduta dagoen


herria delako, eta errepresio horretatik sortutako askatasun grina, askatasun eremuak lortzeko grina abertzaletasunetik harago doa: grina hori bat zetorren nuklearren kontrako borroekin, antimilitaristekin, okupazioarekin... Hortik atera genuen tesia: Euskal Herriak, hizkuntza eta espazio propioa dituen herria izateaz gain, sentsibiltate antiautoritarioa dauka”, dio Pascualek.

Separatismoa eta sabotajea dira *Anarkherriak* dakartzan beste tesi garrantzitsu bi; Pascualen ustetan, oraindik ere indarrean daudenak: “Gaur egun, Euskal Herrian ematen diren erantzunak ere azpigeruza antiautoritario horretan daude sustraituta. Separatismoa, esaterako, oraindik ere bizirik dirauen gatazka da. Zergatik gara separatistak? Zapaltzen gaituzten estatuak ez ditugu uxatzen beste estatu bat eraikitzeke asmoz; estatutik ez diezagutela ezarri nahi dugu. Gure arazoa ez da beste estatu bat eraikitzea, estatu bik zapalduta izatea baizik. Horren aurrean, taktika bi daude: estatu propioa errebindikatzea edo gure egunerokotasunean estatuaren presentzia murrizteko lan egitea”. Sabotajea, zenbait kasutan erabil daitekeen tresna baino zerbaite gehiago da Pascualentzat: “Sabotajea ez da zerbaite su ematea, erresistentzia da funtsa, zerbaite ezartzearen kontrako jarrera. Auzi etikoa da, bizitza ulertzeko modua”.

Aipatutako tesietatik abiatuta eta testua eskuliburua ez dela kontuan izanik, *Anarkherriak* dituen bertutez mintzo zaigu egilea: “Oso testu plastikoa da. Ideia eta kontzeptu orokorrak ditu, 80ko hamarkadara egokituta daudenak. Esan dugun lez, badira bertan erresistentzia edota antiautoritarismoa bezalako kontzeptuak, oinarritzkoak, gaur egungo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeenak. Garrantzitsua da nork bere irakurketa egitea. Ideiek bat egiten dute pentsamendu libertario orokorra eta leku batekiko atxikimendua daukan edonorekin. Bestalde, mugimendu alternatiboak (intsumisioa, esaterako) zelakoak izan diren ikusita, haietan guztietan nolabaiteko etika libertarioa aurki daitekeela esan dezakegu. Nik uste etika hori organikoki finkatu ez bada ere, oso presente dagoela Euskal Herrian. Belaunaldi gazteak sozialismo ortodoxoan baino, irizpide horietan haziak dira”.

Elkarlanerako proposamena

Kontzeptu orokorrak ez ezik, euskal ezker-tiarren elkarlanerako proposamena ere luzatzen digu Legasseren eta Pascualen liburuak: “Orain dela 25 urte, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren esfortzuak estatuarekin negoziazioa bultzatzera zuzenduta zeuden—aurrerago Aljerian gauzatuko zena—, baita euskal gizartearen babesa lortzera ere. Gazte



“Liburuan erresistentzia edota antiautoritarismoa bezalako oinarritzko kontzeptuak daude, gaur egungo gazteentzat interesgarriak”, dio Pascualek.



mugimenduaren beharra zeukaten, eta Jarraik, [Hego Euskal Herriko] lurralde guztietan zegoen arren, ezin zituen gazte guztiak bildu; askorentzat erakargarriagoa zen beste jarrera politikoetatik proposatzen zena. Liburuan, elkarkidetza posiblea eta beharrezkoa zela azpimarratu nahi genuen. Gurean errepresioa nagusi zela, oso une zaila bizi genuela; gure proposamen politikoa xumea eta argia zen oso: denok salbatuko gara edo inor ez da salbatuko. Norberaren autonomia errespetatuz, aldean arteko harremanak garatu zitezkeen. Nor bere irtenbidearen bila ibiltzeak ez zuen ezertarako balio. Nire ustez, liburuak balio izan zuen ezker abertzaleak sortu berri zuen mugimendu hura kontuan izateko, baita ere sektore guztiek ikus zezaten elkartrukerako aukera bazegoela”.

Egungo egoerarekin baikorra da Jakue Pascual: “Etorkizunerako aurreikuspenak duela 25 urte baino askoz hobeak dira; nahiz eta gaur ez dagoen garai bateko autoeraketarik, beharrezkoa izan denetan haren dirdira ikusi izan dugu, han-hemenka, baita alderdien gainetik ere. Inportantea da hau, *Anarkherriak* proposatzen duenaren ildoan doala-

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

"Ez dago pirata baino libertarioagorik"

Txertoa izan zen, duela 25 urte, *Anarkherria* plazaratu zuen lehenengo argitaletxea. Harrezkero, birritan egingo zuen Likiniano Kultur Elkarteak eta urteurrena ospatzeko Txalapartak aterako du urrian. Testuak hainbat aldaketa eta egokitza-pen izan dituen arren, ez da berdin gertatu euskal irudikar-ian hain inportantea den alde grafikoarekin. Liburuaren azaleko ikurri pirataz ari gara adibidez, garezurra nagusi duen ban-dera gorri-beltzaz. Marrazkiak Jimmy Olaizolak egin



txeek, adibidez, eurenaganatu egin dute.

zituen eta Jakue Pascualen hitzetan, "marrazkiak pentsa-tzerakoan Jimmyk oso ikuspegi zabala eta globala zeukan. Berak gauzatu zuen komunean genuen estetika apurtzaile hura. Denon buruan zegoen piraten kontua, ez baitago pirata baino libertarioagorik, normala da askatasunaren aldekoekin lotzea". Ikurri horrek mota guz-tietako egokitzapenak ezagutu ditu hainbat esparrutan: surfla-riek, futbolzaleek edota gazte-

ko: ez dugu esaten desobedientzia leku zehatz batean egin behar dugunik, baizik eta mota guztietako botere eta inposaketaren aurrean desobediente izan behar dugula. Kalea galdu badugu ere, desobediente izateko beste eremu batzuk berreskuratu ditugu, egungo neoliberalismo hau inolaz ere nahi ez dugula esateko eremuak sortu ditugu. Horrek bat egiten du azken garai hauetan agertzen hasi diren mugimenduekin, logika autonomoa duten mugimenduekin. Hori bai, geu ez bezala, irekiagoak dira gaurko hauek. Belaunaldi berriek boterea borrokatzeko, beren lekua errebindikatzeko modu berriak dituzten arren, ezetz esaten jarraitzen dute. Ongi gaudelakoan nagoen arren, botereak oztopo guztiak ipiniko dizkigu".

Gaur egungo politikari begiratuz, betiko euskal erakundeek (auzolana, batzarra) duten garrantzia azpimarratu du Pascualek: "*Anark-*

"Inportantea da erabakiak hartzerakoan prozesua behetik jaioa izatea. Erakundeak kudeatzen dituen logikari buelta emateaz mintzo gara, behetik eraikitzeaz, herriaren egunerokotasunetik"

JAKUE PASCUAL, ANARKHERRIA

herriak betiko antolakuntza modu hauek uztartu nahi ditu erakunde-harremanak ulertzeko anarkismoak duen erarekin. Azken batean, zein da euskal erakundea ulertzeko modua? Batzarra. Ez da egia jauntxoek batzar-rak zirenik, ezta emakumeek parte hartzerik ez zutenik. Egun, hauen gaineko arreta berpiztu da; programatikoki, duela gutxi sinatutako ezkerretako itunak gure erakunde ordezkartzaren alde bat direla onartzen du; esaten du, beraz, bultzatu behar ditugula. Auzolanak partekatzen ditugun arazoak zein errealitate zehatzak konpontzeko balio du. Inportantea da erabakiak har-tzerakoan prozesua behetik jaioa izatea. Hau da, erakundeak kudeatzen dituen logikari buelta emateaz mintzo gara, erakun-deak behetik eraikitzeaz, erakundeak herriaren egunerokotasunetik eraikitzeaz. Horixe da fal-tan duguna eta politikagintzaren zilegitasuna kolokan jartzen duena". ■



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

KOLERAK ere bere heinak :

HASERRETUAK



SUMINDUAK

POLITIKARIAK
UTIKAN !

TRIBUTEGI
KONSTITUZIONALA



ERRESUMINDUAK

EPEL
USTEL

ALEKUM
XALA

HAU BAI
PILOTA
KADA!

FALTA ?
PASA
IN 212TE



Etxeko kontuak

Natalia Ginzburg idazlearen libururik adierazgarrienetako bat *Gure etxeko kontuak* da. Jatorrizko izenburua *Lessico familiare* da, baina euskaraz daukagu, aurkezpen handien beharrik ez duen Fernando Rey itzultzaile bikainak euskaratu zuelako, Igela argitaletxearentzat, 2004an. *Gure etxeko kontuak* liburuan, Natalia Ginzburgek familia deritzogun izate “terrorifikoa” aztertzen du, eta, bidenabar, guraso, anai-arreba eta sendi-lagunak oroimenera ekarriz, inguruko gizartea ere bai. Familia-kronika bakoitza, garai bakoitza bezala, bat eta bera da, errepikatzen zaila, baina Natalia Ginzburgen liburua irakurtzerakoan berehala konturatzen gara oso hurbileko etxeko kontuak eta oso gaurko etxe-giroko osagaiak ekartzen dizkigula gogora. Familiari familiak berak baino kalte handiagorik egingo dionik ez dago, eta nik ulertzen dudan moduan, ezkerreko politikari ohiko jarreraz gertatzen zaizkionak ongi deskribatzen dute misterio berezi hori, alegia ezkerreko politikari ezkerreko politikak berak baino kalte handiagorik egingo dionik ez dagoela. Ezin etxekoak izorratu gabe bizi, betiko maitasunaren izenean. Beñatek eta Uxuek hori ikusi dute, nik ere bai, aspaldi, baina ohartu naiz tristezia bizian jartzen nauela onartu beharrak. Eta onartu beharra dut, arimaren etsairik handiena eliza bera dela onartu behar den bezala edota herritarren segurtasunaren kontrakorik kontrako itsusien polizia bera dela onartu behar den bezala. Etxetarrak etxekoak maite ditu, baina beste etxekoak eta besteen etxean. Bildu koalizioak garaipen argia lortu badu ere Gipuzkoako foru-hauteskundeetan, garaipen hori espejismo hutsa baino ez da niretzat. Ezkerreko alderdien porrota gardena baita, eztaba daezina

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

tzat. Ezkerreko alderdien porrota gardena baita, eztaba daezina. Eta ongi deskribatzen du errealitate hori Rosalía Mera andrea, Zarako fundatzaile eta Espainiako emakumerik aberatsena, M15 mugimenduari bere elkartasuna adierazten ikusi beharrak, “Planto egin eta ‘horrela gehiago ez’ esan behar dugu” ausaz adierazi zuen bihotz onekoak, A Coruña katedralean erreztzera sartu aurretik. Kapitalismo zoroak ezin hobeto txertatu du bere bihotz zoroa gure ohituretan, asmatu du, eta gure egunerokotasunarenganako sentimenduekin nahastu da: museoak jartzen dizkiogu, azkena, Getarian bertan. Etxekook pepino kutsatu zaleak garela argi dago, oso gainera, eta beste bat sartu digute nortasunaren entsaladan. Etxeko kontuak, noren etxekoak baina, ez dakigu. Jorge Oteizaren oztoporik handiena ere bere herrikideen kirteneria izan zen, etxean bertan zituen Oteizak bere areriorik tontolapikoenak, Antonio anaia gazteena tartean. “Guraso berberen semeak izan arren...”. Etxe barruan horrelako anaiak izanik ez dugu kanpoko etsairik behar. Beharrik ere ez! Baina etxekoen haragia ahula da. Hortxe Vicky eta Mari Jose, ahizpa bikiak izan nahian, eta ADN frogak ezetz, ez ahizpa, ez biki, ezta elkarren ezagunak ere ez direla izan sekula. Izuen etxeko kontuak. Beharbada, Goizargi Estibaliz Carranza Zabalak ere horrelako zerbait izango zuen gogoan, bere senarra izandakoaren eta bere mutil-lagun berriaren gorpuak zatitu, txiki-txiki egin eta gorpuzkinak Vienen zuen izozki-dendaren sotoan gordetzen zituen bitartean. Poliziak zerk bultzatuta egin omen zuen galdetu, eta Estik aitortu: “Familiaren arazoek, etxeko kontuak”. ■



Etxetarrak etxekoak maite ditu, baina

beste etxekoak eta besteen etxean.

Bildu koalizioak garaipen argia lortu badu

ere Gipuzkoako foru-hauteskundeetan,

garaipen hori espejismo hutsa baino ez da

niretzat. Ezkerreko alderdien porrota

gardena baita, eztaba daezina



Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Korapiloa askatzen

M

aiatzaren 22ko emaitzek irabazle eta galtzaile argiak irudikatu zituen, baina gehiengo osorik ezean, honek nahitaez ez du askatzen gobernagarritasunaren korapiloa. Irri eta mal-

koen gaua pasa ondoren hasi da karta jokoa, gehiengoak errespetatzearen auzia, noiz den zilegi eta noiz lapurreta, eta posizioa hartu eta eskatzearen kontuak. Alderdi askok gainera, hauteskunde autonomikoei begira egonik, inorekin ezkontzeko asmorik ez dute islatu nahi izan, oraingo konpromisoak hurrengoetan gerta daitezkeen bikoteak ez oztopatzeko. Kontu honetan poligamia ez luke hain gaizki ikusiko norbaitek.

Udal erakundeak osatuak ditugu eta Batzar Nagusien eraketarako zertzelada batzuk ikusi badira ere korapiloa ez da behin betiko askatu. PSE-EEK EAJri babesa eskaini zion lau udalerrien truke, baina errealki jomugan Lasarte-Oria zegoen, herri honetan bakarrik baitzuen PSEk gehiengo. Iñigo Urkulluk bi egun lehenago esandakoaren aurka, Lasarte-Oriako EAJko hautagaiek Bilduri eman diote bozka eta herri plataformarekin batera PSEri kendu diote alkatetza. Alderdi diziplinaren haustura baino akordio zantzuak atzematen dira. Lanestosako PSEko kideek bai hautsi dutela barne diziplina,



INIGO AZKONA



Alderdi askok inorekin ezkontzeko asmorik ez dute islatu nahi izan, oraingo konpromisoak hurrengoetan gerta daitezkeen bikoteak ez oztopatzeko. Kontu honetan poligamia ez luke hain gaizki ikusiko norbaitek



Bilduri bozka eman eta EAJri alkatetza kendu orduko eskatu baitie PSEk zinegotzi akta entregatzeko. Tokian tokiko berezitasunetik harago, PPk herri batzuetan EAJren aldeko bozka eman du Bilduren udal gobernua ekin asmoz eta PSEk akordio globalik ezean EAJri bozkatuko ez zionaren mehatxua bete du. Ez dugu jakingo Lasarte-Oriako udala goizen eratzeak zer mailatan baldintzatu dituen beste herrietako balizko akordioak.

EAJk ez du guztiz argitu ze jarrera hartuko duen Gipuzkoako Ahaldu Nagusiaren aukeraketa egunean. Lasarten gertaturikoak Gipuzkoak Bilduren Ahaldu Nagusia izango duenaren ideia babesten du, zail ikusten baita EAJren hautagaiak PSEren babesa jasotzea eta horrela berretsi dute PSEko buruek Lasartekoaren ostean. Baina Elorrioren PPren babesari esker EAJk alkatetza lortu du eta gertaera mugatu bat bakarrik al den ez dugu jakingo momentuz. Karta jokoa ez dela amaitu dirudi eta partida hasi zenetik keinu ezberdinak ikusten ari gara, oraindik negoziatzekorik badela erakutsi asmoz. Korapiloa askatzen hasi da ekainaren 11n, baina politikan hain beharrezkoa den zuhurtziarekin, udarak oraindik ere sorpresak eman ahal dizkigula ez baztertzea hobe, batek daki. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



esan du kirolariak, kirol jardunean oinarritzea duen lehiakortasunak telekameran aurrean abandonatu izan balu bezala.

Nagusiaren okerkeriari aurre egin ez izanaren latsa, esaldi horrekin estali duela sinesteak, langile bakar bat ezagutu ez duenaren seinale da, eta Leitzako pelotariak bere inguruan langilerik ez duela ezagutzen ezin da sinetsi. Guk horretan ez dugu zer eginik esan du goizuetarrak, lekuindarrari nagusiak berea lehiatzen eragotzi diolarik. Ez zuela finala jokatuko alegia, finantzieroki desastre bat zela gibelaraztea sanferminak eta besteak gainean. Eta Aimarrek obedi-

Langile soilak gara

tu, kirolariak esanekoak gara eta ez dugu sesiorik maite. Oinatzek, bakoitzak bereari so, biktimaren tonuz langile izatearen aipuz likidatu nahi izan du bere jarrera intsolidarioa, langileriaren hizkuntzan eskirol hitzez laburbiltzen dena. Negozioa, espektakulua, kirola. Trinitatea. Eta bat eta bakarra izan dadin, kirolarien obedientzia ezinbestekoa da, kontratu pribatueta doa eta honen zutabe da. Erdaraz mintzatu den euskal pilotaren trinitateak, barne arazo bat izan du konpontzeko bidean dutena. Hurrengo kontratueta agian.

Oharra: Xalax finala jokatuko duela jakin dut testua idatzi ondoren. Bego horretan. ■

Pili Yoldi

KAZETARIA

Galtzaileen egia

Nafarroako Erresuma 1512an Gaztela izatera pasa zeneko gertakizunez nire kintako askok ez genuen zalantza handirik: hango eta hemengo jauntxo eta erregeen akordioa izan zela eta gaiari ez omen zitzaion buelta gehiago eman behar.

Gure etxeko sutondoetan eta afalondotan gutxi aritu gara horretaz. Eta gauza bera inguruko familia gehienetan. Orain urte gutxi hasi zen konkista odoltsuaz mintzatzzen, zenbait historialari eta iker-tzaile ausarti esker, baina beti talde txikitan, beti egia ofizialak zapalduta eta apenas gehienon esparru pribatueta.

Bibliako historia sakratuaz aparte, zer historia mota jaso dugu gure aitona-amonengandik? Gure lurraren ibilbidea ez behintzat. Are gehiago, noren aitona-amon-ek jaso izan dute Nafarroako historia beren aitona- amonengandik?

Historia irabazleek idazten dutela esaten da beti, baina ez da aipatzen horri gehitu behar zaion galtzaileen isiltasunaren papera: nola kontatu seme-alabei norberaren porrota, norberaren borroka galduak? Horrela transmititu da historia.



JOSU SANTESTEBAN

Oraindik oso gertu daukagun gerra zibila, kasu. Zer dakite horretaz aurreko lehenengo aldiz bozkatu duten gizon-emakumeek? Zer dakigu guk geuk? Gure gurasoek gazte-tan kontatutako handikerietatik zahartzaroan egindako aitormenetara tarte zabala dago, sentimenduz beterik baina datu gutxi zehaztuta.

Benetako amorrua ematen du guri hartzaroan gure gertuko historiaren zenbait pasarte epiko bezain hunkigarri lapurtu izanak: Nafarroako Pedro Mariskalaren biografia, protagonismoa eta hilketak. Edo edozein telesailekoa baino gaiztoagoa zen Fernando Katolikoak —gero Makiavelok eredu gisa goraiatuko zuena— egindako azpijokoak Nafarroako Erregeek orduko Aita Santuak eskumatzen. Edo gure lurzoruetan —Noain, Amaiur— egindako borroka, abenturak eta desbenturak. Historia, XVI. mendekoa, mende honetako, joan den urtekoa, pasa den astekoa. Aprobetxatu gure hurrengo-

goi ikasitako eta bizitutakoa kontatzeko, garaipenak eta porrotak, pertsonak eta pertsonaiak. Ez da erretiroa hartu arte itxaron behar. Uda honetan bertan oso garai ona da hasteko. ■

«
Historia irabazleek idazten dutela
esaten da beti, baina ez da aipatzen
horri gehitu behar zaion galtzaileen
isiltasunaren papera: nola kontatu
seme-alabei norberaren porrota,
norberaren borroka galduak?
»

TXANDAN

Josu Amezaga



Gauza handia da hizkuntzak jakitea, batek ezkutatzen duena besteak erakusten baitizu. Horrekin batera, hizkuntza txikiek ere abantailak daukate; besteak beste, terminoak eta kontzeptuak ez dira ideologia sortzen duten eragile nagusien hain menpeko, hauek hizkuntza nagusian mintzo ohi baitira.

Horixe gertatu zait gaztelerazko “progreso” hitzarekin. Euskaraz “aurrerapena” erabili izan da azken bi mendeetan gutxienez.

Zenbaiti irakurri diot, euskaraz, Bildu instituzioe-

Bildu eta aurrerapena

tara iritsiz gero dagokion herrialde edo herriko aurrerapena eten egingo dela. Kontua da ordea aurea eta atzea zer den norberaren norabideak definitzen duela.

Hartara, batzuentzat aurea dena beste batzuentzat atzea izango da, eta bestetzentzat albo. Nik ez dut uste Bilduri botoa eman diotenen artean gelditzeko asmorik dagoenik. Aldaketa garaiak aldarrikatuz inguratu ditu koalizioak hainbeste boto-papere, eta aldaketak mugimendua dakar. Nago, jende horrek guztiak ez duela aurrerapena zalantzan jartzen. Norabidea da aldatu nahi duena, eta hori abiada aldatzea baino sakonagoa da. Paradigma aldaketa. ■

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Arte pornografikoa

Lars von Trier zinemagileak Can-
nesen Hitler uler zezakeelako
adierazpen polemikoak egin
ondoren iragarritakoa oharka-
bean pasa da. Bere hurrengo
filma zuzenean pornografikoa izatea nahi
omen du. Zuzentasun politikotik harago
joan izana artearen inplosioarekin berare-
kin berdintzen saiatzen zelako irudipena
eman zidan. Beharbada apokalip-
tiko jartzeko unea da eta, Atxaga
“haur eta gazte literaturak literatu-
ra osoa irentsiko duelakoan”
dagoen bezala, zinemagintza oso-
aren pornografikotzearen aldarri-
katzekoa. Haurrentzako liburu ez
lotsagarri bat edo Nafarroa Oine-
zen abestiaren letra idaztea bezain
desafio zaila iruditzen zait “hel-
duentzako” film baten gidoia egi-
tea. Egia da badagoela bidea urrat-
zen eta beharbada batasun
osoaren egun handia aurreratzen
ere hasi duenik: Virginie Despen-
tes-en *Baise-moi* edo Michael
Winterbottom-en *9 songs*; Hedoi
Etxarteri gomendatzera inoiz ausartu
ez naizen Bruce Labruceren *The Rasp-
berry Reich* (“masturbazioa kon-
trairaultzailea da” bezalako kontsignadu-
na) edo, ez hain *radical chic*, Travis
Mathews-en *I want your love* labur-
metraia nire ustez maitagarria (ik.
[www.xvideos.com/video1093542/
i_want_your_love](http://www.xvideos.com/video1093542/i_want_your_love)).

Umberto Ecoren ustez, film porno
bat film, esan dezagun, konbentzional
batetik bereizteko modurik zehatzena
elipsiaren erabilera da. Beste nonbait
azaldu dudanez eta lagunek maiz
entzun behar izan didatenez, halako
pelikuletan egin beharrekoa egin
ondoren eta hurrengo *tour de force* iristen
den bitartean, zuzendariak minutu batzuk
bete behar ditu, betegarri huts, ikuslea
indarberritu dadin, eta horretan ekoizleek
ez omen dute gidoilaritan edo zuzendari
artistikotan diru gehiegi xahutu nahi,
badakitelako trantsizio funtzioa baino ez



JOSU SANTESTEBAN



‘Ohean, atzetik hartzen duenak
maitasuna egiten du (sic) eta ematen
duenak bere burua aktore pornotzat
dauka’. Septimioren esaldi hari
oihartzun eginez: ‘Idazten duenak
maitasuna egiten du (sic), irakurtzen
duenak atzetik hartzen du’



irudia:

Antton Olariaga

duela betetzen, eta ikuslea zeren zain
dagoen. Horregatik, protagonista eskalera
bat igotzen agertzen da, lehen solairutik
atikoraino. Hain zuzen ere, beste filmetan
(salbuespen iraniarrak albuespen) elipsian
emango luketena.

Elipsi gabezi honek arazotsu bihurtzen
du, ezinezko ez bada, pornografiaren arte
izaera. Ez dago guk bete beharreko hutsu-
nerik. Bizitzaren ekintza guztien
atzean dagoen motibazio sentsua-
la sublimatu ordeztu, artelan guztiek
modu inplizitu edo esplizituagoan
—badakizue, kontzeptu horiek—
egin ohi dutenez, bestelako fikzio-
en barne mekanismoa, lehen era-
gilea, desestaltzen digute. Alde
horretatik, artea deitzen ahal
bazaio, arte tekniko bat da, ez
istorio ez interpretaziorik (nahiz
eta, hori ezin baita ukatu, akto-
reak, batez ere hitz egiteari uzten
diotenean, beren pertsonaietan
guztiz sartzen diren, eta, gehienu-
tan, baita ondoko pertsonaien
barruan ere), baina, hala ere, ikus-

leak astintzeko eta eragiteko ahalmen
handikoa, hala epe laburrean, nola
—seguruenik garrantzitsuago— luzean.
Eleberri erromantikoek maitasuna era-
kutsi ziguten (cf. *Madame Bovary*) eta
zinema ez pornografikoak (nahasgarri-
ki, “zinema” izenarekin ere ezaguna)
muxu nola eman erakutsi zigen XX.
mende hasieran. Pornoak, inolako
zalantzarik gabe, larrua jotzearen
koreografia irakatsi digu, imintzioak,
hitzak eta guzti.

Lagun batek, goi arnasadun gai batek
solasera ekarrita, hala bota zuen:
“Ohean, atzetik hartzen duenak maita-
suna egiten du (sic) eta ematen duenak
bere burua aktore pornotzat dauka”. Septi-
mioren esaldi hari oihartzun eginez: “Idaz-
ten duenak maitasuna egiten du (sic), ira-
kurtzen duenak atzetik hartzen du”).
Beharbada, oheetan burutzen dugu beste
inon ezinezkoa den arte pornografikoa.
Argiak, kamera, ekin! ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Sarriegi Galparsoro

Bertso berriak, galtzaile txarrari jarriak



DANI BLANCO

*Kristo jayo ta bi mila eta
hamaikagarren urtian
Maiatz hilaren hogeitabiya
ez zala hain apartian,
kontubak hala suertatu dira
kontzejuaren partian,
Elortza batek hortzetakua
jaso du ezpain artian.*

I

Kontuak ongi doazenean
ia edonor da lagun,
berdin da eskuin nahiz ezkerreko,
espainol ala euskaldun,
baina okertzen hasi daitezke
ai amigo bufandadun...
eta orduan nabarmentzen da
barruan zer daramagun.

II

Gure pirata bufandaduna,
zapatutik igandera
aginte-postu zaharretik jaitsi
dena eskaileran behera.
Goitik beherako tolerantia
toleranteetan bera...
abordajea heldu orduko
jarri du mastan bandera.

III

Errespetatu behar zuenak
gertatua, igaroa,
irentsi behar izan du nola
joan den bere aroa.
Gero “ez baina, esan nahi nuen
alkate hau ez badoa...”
mingaina bera bufanda baino
korapilatuagoa.

IV

Oraintsu arte “zibikoa” zen,
dena perfume usaina,
agintaldiko azken uean
egin du, baina, hazaña.
Alkatetzara nola heldu zen
askok ahaztu dute baina
bi hamarkada ez dira nola
joan den ahazteko haina.

V

“Cobardes!” hoska Salbe egunez
ezagutua lehenbizi,
hogeitaz urtean zenbat danbor hots
bizio eta gutizi!
Bat guztiona omen da baina
zuk badauzkazu bi krisi,
banderak mastan gutxi iraun du,
agur eta Odon bizi!

DOINUA: Andre txarren bentajak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Liburu denden etorkizuna

Arriskatzea da bide bakarra

Kafea edo produktu ekologikoak dastatuz saiakera bat irakurri ahal izatea; arte galeria, web consulting-a, eta liburu aurkezpenak eta hitzaldiak egiteko espazio soziala; liburuak webgunearen bidez mailegatu edo trukatu ahal izatea... Gure ondorengo protagonistek garai berrietara egokituz euren liburu-dendetan eskaintzen dituzten aukeretako batzuk baino ez dira.

UXUA LARRETxea



DANI BLANCO

“GAUR-GAURKOZ bi aukera daude: panorama ikusita ikaratzea, makurtzea eta ezer egin gabe geratzea, edota erronkari aurre egitea, ausardiaz eta arriskatuz”. Imanol Agirre zarauztar gazteak gisa horretan ikusten du liburu-denden etorkizuna Garoa liburu-dendatik. Flor Illaramendi ama, Imanol Agirre aita eta Eneko eta Imanol semeak daude Garoaren atzean, familia eta historia oso bat. 1973. urtean ireki zituen atea gaur egun Zarauzko liburu-denda bakarra den honek, eta azken urtean semeek hartu dute haren

Liburuak eskulturekin bizi dira Zarauzko Garoa liburu-dendan. Espazioari beste hainbat erabilera ere eman nahi dizkiote.

lema, errelebo naturalari bide eginez. Orain arteko negozioari bestelako norabidea eman diote Garoaren bi espora hauek.

Liburuak eskaintzeaz gain, bai baitauka Garoak ohiko liburu-dendatik desberdintzen duen bestelako ezaugarriarik, esaterako, erakusgai dauden Jose Luis Lasa artistaren eskulturak. Liburuaren artean eta beheko solairuan daude paratuta. “Inguruko, baina bereziki Zarauzko artistek zein idazleek Garoan euren espazioa izan dezaten nahi dugu, euren lanei zabalkundea emateaz gainera”.

Beheko solairua artearen txoko izendatu dute, betidanik izan duten ametsari bide emanez: liburuak eta galeria uztartzea. Horrez gain, Imanol semeak azaldu duenez, aurrera begira literatura eskola edota tailerra sortu nahi dute, ahal dela herriko jendearekin; eta besteak beste, argitaratu berri diren liburuen aurkezpenak egitea ere aurreikusten dute. Hitzaldiak, eztabaidak... denak dira ongiatorriak Garoan. Imanolek azaldu du euren helburua globala dela, “baina ikuspegi lokalarekin egiten dugu lan”.

Imanol liburuekin dabilen bitartean, beheko solairuan aritzen da lanean Eneko, bertan ezarria duen web consulting-ea. Proiektu ugari egiten ditu prozesamendurekin lotuta, dela Google bilatzailean lehen postuetan nola atera, dela webguneei zein ikuspegi eman. Horiek Garoari eta bestela dituen bezeroei aplikatuko dizkie. “Hemendik hamar edo hogeitaz berru ez dakigu zer gertatuko den liburugintzaren esparruan, eta hortaz, zer gerta ere prest egon behar gara, ikasten joan eta etengabe berritasunak txertatu”. Nolanahi ere, oso argi dute liburuak joan behar duela jendearengana eta ez alderantziz, orain arte egin den moduan.

La Hormiga Atómica, gizarte eraldaketaren sustatzaile

Zarautzetik Iruñeko alde zaharrera egingo dugu jauzi La Hormiga Atómica ezagutzeko. Ez da liburu-denda zentzu hertsian, ez behintzat liburu-denda bakarrik. “Lokala da eta kolektiboa ere bai. Lokal gisara liburu-denda politikoaren eta zentro sozialaren artean gaude”, azaldu digute bertako kideek. Produktu ekologikoak eta bidezko merkataritza-koak biltzen dituen kafetegia, saiakera politikoan, mugimendu sozialetan eta narratiba hautatuen espezializatutako liburu-denda eta espazio soziala; hori dena aurki daiteke La Hormiga Atómica-n. Asanbladak egiten dituzte, atzeritarrentzat gaztelaniazko klaseak eman, liburuen aurkezpenak egin, baita hitzaldiak eta prentsaurrekoak ere. Finean, hiriko norbanakoei eta kolektiboei irekia dagoen espazioa da.

2008an sortu zen, “hirian politikoki esku-hartzeko asmoz eta egun bizi ditugun eztabaidak sendotzeko itxaropenez. Kolektibo gisara gure lanaren bidez honakoak jorratzen ditugu: migrazioaren inguruko gaiak, pertsona ororentzako eskubideen aldarrikapena, hiriko kultura, politika publikoak eta talde



JOSU SANTESTEBAN

“Aldaketa erreminta gisa ulertzen dugu liburuak, ez jakintzaren edukiontzi bezala” diote La Hormiga Atómica kideek. Abiapuntu horretatik liburuen salmentatik askoz harago doan espazioa sortu dute Iruñeko alde zaharrean.

kulturalak, besteak beste”. Proiektuaren atzean izen eta aurpegi anitz, zenbatzeko ere zailak.

Saiakeraz beterik daude oro har, La Hormiga Atómica apalak, eskaintzaren hiru laurdenak gisa horretako argitalpenak baitira. “Aldaketa erreminta gisa ulertzen dugu liburuak, ez jakintzaren edukiontzi bezala”. Hortaz, liburu-dendak funtzio politikoa duela baieztatu digute, baina nortasun politiko edo ideologiko jakin bati lotuta egon gabe, proiektu irekia delako. Irekitasun horretan, alta, bada partekatzen duten interes bat: norbera hezteko, ezagutza jasotzeko, eta horrekin batera, gizartearen eraldatzeko nahia.

Montag, Donostiako liburutegi askea

La Hormiga Atómica-ren antzera, argitaletxe alternatiboei eta herri mugimenduei leku egin nahian, Gipuzkoako hiriburuan egitasmo berria erretzen ari da: Montag. Liburuen salmentatik etekin ekonomikoa ateratzeari muzin eginez, ezagutza kritikoak eta ekimenak garatzeko gune askea eratu nahi dute. Hasieran ekimen birtuala izango da, webgune baten bitartez abiaraziko dute proiektua, aurrera begira leku fisikoa izatea baztertu ez arren. Zazpi bat kide ari dira ekimena bultzatzen, alor desberdinetakoak denak: Donostian argitalpen alternatiboen esparruan dagoen gabeziak jabetu eta irtenbideren bat bilatu nahi izateak elkartu ditu. Horrek eta euskaraz bizi diren pertsonak izateak, antikapitalistak, autonomoak eta asanblearioak.

Liburutegi baten gisa funtzionatuko du Montag: Donostian –eta inguruan– interesatua dagoen jendearekin bazkide taldea osatuko dute eta mailegu bidez liburuak hartzeko aukera eskainiko dute, erosteko eta

trukatzeko bidea zabalik utziz. Bestelako xede batzuk ere badituzte finkatuta, hala nola, argitalpen propioak bideratzea, gizarte mugimenduen bilgune izatea, edota ekimen kulturaleri espazioa eskaintzea. Montag-ekoek adierazi dutenez, “epe luzerako helburua Donostia gizarte mugimendu eta pertsona kritikoen erreferentzia puntu bilakatzea da”.

Aukera berriak “desberdin”-entzat

Garaiak aldatuz doazela-eta lehen liburugintzaren esparruan ardurak oso banatuta eta zehaztuta bazeuden ere, egun muga horiek ez omen dira horren argiak Garoako arduradunen ustez. Alde baikorra ikusten diote horri: “Aukerak ematen ditu, esaterako, liburu-denda bat argitaletxe edo editore bilakatze”.


La Hormiga Atómica-koek liburu-denden etorkizun bateratuaz ezin dela hitz egin uste dute, panorama oso ezberdina delako liburu-denda espezializatuentzat, eskaintza orokorrentzat, liburu-denda kateentzat eta liburuak saltzen dituen saltoki handiarentzat. Euren kasuan, etorkizuna baikorra dela gaineratu dute, proiektuaren iraupen komertziala bigarren mailakoa baita. Beste alderdi baikor bat

Liburuak joan beharko du jendearengana aurrerantzean, ez alderantziz: printzipio hori azpimarratu dute Zarauzko Garoa liburu dendako arduradunek

ere ikusten diote egoerari: “Aldaketa teknologiko eta kulturalen ondorioz, egun ekoizpena ez dago editore talde handien eskuetan zentralizatuta”. Diotenez, editorial txikien eztanda gertatzen ari da, duela urte batzuk inori argitaratzea bururatuko ez litzaiokeen liburuak ekoizten dituztenak. Hori nola baliatu argi daukate: “Ekoizpen horretan nabigatzen jakitea oso garrantzitsua da”.

Liburuen ekoizpenaz gainera, kultura bera ere demokratizatu dela azpimarratu dute, kulturara iristeko bitartekoak ugariagoak direlako. “Liburuek munduarekiko daukagun harremana sakontzen eta elikatzen dute, eta horietara iristeko bitartekoen demokratizazioa albiste ona da”. Hori dena kontuan izanda, La Hormiga Atómicakoen aburuz, liburu-denden eta editorialen biziraute ekonomikoari ez zaio beldurrez begiratu behar, itxaropenez baizik.

Liburu-denden etorkizuna ziurra ez den garai hauetan, arriskatzearen hautua egin dute Garoakoek eta La Hormiga Atómicakok, eta liburu-denda ixteko unea iristen bada, hala egingo omen dute. Baina bien bitartean esperimentatzen eta aukerak baliatzen jarraituko dute. ■



Z izpiak



ELHUYAR
edizioak

SENDABIDE ALA IRUZURBIDE. MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA PROBAN

Trick or Treatment? Alternative Medicine on Trial liburuaren euskarazko itzulpena.

Egileak: Simon Singh eta Edzard Ernst

Eraginkorra ote da medikuntza alternatiboa? Proba zientifikoek emandako ondorioak.

15 € e-booka 11 €

Edzard Ernst egilearen hitzaldia:

Medikuntzan doktorea eta medikuntza osagarria irakasten duen munduko lehenengo pertsona.

Uztailaren 5ean. Miramar jauregian, arratsaldeko 7etan.

Informazio gehiago www.elhuyar.org webgunean



Artea

Ipar Korearen historia, propagandaz eta artez

Etengabekoak izan dira Ipar eta Hego Korearen artean nor bere sistema Koreako penintsula osoan gailentzeko ahaleginak. Ideologiak eta Gerra Hotzak tindatutako borroka horretan, propagandak berebiziko garrantzia izan du. Horren isla da ekainaren 29ra arte Bilboko Alondegian ikus daitekeen *Ipar Korea: Historiaren zama* erakusketa, herrialdeko afixez eta beste hainbat materialez osatua.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

MENDEETAN hamaika inbasio pairatu zituen arren, politika eta lurralde batasunaren eredu izan zen K.a. VII. mendean Yi dinastiak sortutako Koreako erresuma. II. Mundu Gerra amaitutakoan, korearrek Japoniaren uztarritik beren burua libre zekusatela, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunak (SESB) eta Amerikako Estatu Batuek (AEB) inbaditu zuten herrialdea. Aurrerago, potentzia garaile biek 38. paraleloaren gainean ezarritako bereizketa (1948) berretsiko zuen Koreako gerrak (1950-1953). Eta behin hori bukatutakoan, Gerra Hotza hasi zen. Alde bakoitzak bere independentzia aldarrikatu zuen, nork bere estatua. Eta 38. paraleloa munduko mugarik militarizatuena bihurtu zen. Hegoaldean, Koreako Errepublikak komunismoaren kontrako ideologia militarreko diktadurak gidatuko zuen. Dena dela, urteak pasa ahala, diktadurak demokraziari eman zion bidea. Horri esker, eta AEBek lagunduta, hazkunde ekonomiko handia izan zuen, erdi mailako klase indartsua sortuz. Horixe da iparraren kontrako bermerik onena. Iparraldean ordea, Sobietar Batasunak eta Txinak bultzatutako estatua eratu zen: Koreako Herri Errepublika Demokratikoa. 40 urtez Kim Il-sung izan zen mandataria eta Kim Jong-il semeak ordezkatu zuen 1994an.

***Ipar Korea: Historiaren zama* erakusketa**

1948tik alde biek jardun dute elkarren kontra, bakoitzak bere sistema ezarri nahian; bakoitzak historiari buruzko bere ikuspegia penintsula osora zabaltzen saiatu da. Ezinbestekoa

**Errealismo sozialista, 1917ko
Sobietar Iraultzak sortu
zuenaren antzekoa, nagusi da
afixetan**

zen agitprop estrategia leninistaren erabilpena, hau da, iritziz publikoan eragina izatea artea baliatuz. Rafael Buenoren aburuz –bera da Alondegian ikusgai dugun erakusketa antolatu duen Casa Asiako Politika eta Gizarte alorreko zuzendaria–, “Koreako kartelak mezu bat helarazteko modurik zuzen, eraginkor eta biziena dira; telebista edo irratia baino askoz ere gehiago”.

165 kartekek eta 28 margok osatzen dute erakusketa. Haiekin batera, Ipar Korearen bizimoduaren hainbat aspekturen inguruko dokumentalak eta *Ipar Koreako ipuinak* zinema-zikloa ere aurkituko ditugu. “Aberriaren Liderra eta Aita”, Pyongyang hiriburua, arkitektura, emakumezkoen futbola eta gimnasia bestelako ikuskizun artistikoekin uztartzen duen Arirang jaialdia dira, besteak beste, filmek azaltzen dituzten gaiak. Erakusketak Koreako Herri Errepublika Demokratikoaren bilakaera islatu nahi du, 1948tik XX. mendearen amaiera arte.

Bi dira materialen jatorriak: afixak Ou Nang bildumagile txinatarrek urteetan Pyongyangera egindako bidaietan osatu zuen funtsetik datoz eta 50 urteko tartea jasotzen dute; margoak berriz, Koreako Herri Errepublikaren Atzerriko Kultura Harremanetarako Batzordeak utziak dira. Kartelen estetikari segitzen diote, kartelen beraien sortze prozesua –margo batetik mila alditan inprimatua izango den afixeraino– erakusteko asmoz.

Errealismo sozialista, 1917ko Sobietar Iraultzak sortu zuenaren antzekoa, nagusi da afixetan. Hala ere, badira hainbat osagai afixa



Militarrak, beharginak eta ikasleak dira Alondegian ikus daitezkeen Ipar Koreako afixetako protagonistak.

korearrak bereizten dituztenak: hala nola, Koreako pintura tradizionala (choshonhwa), kaligrafia eta tinta. Lehen esan dugun lez, kartel guztiek propaganda dute helburu, Ipar Korearen erregimenaren aurrerakuntza, ahal-lagin kolektiboak (produktibitatea, kirola...), aberriaren balioak eta herrialdearen garapen

ekonomikoa ezagutarazi nahi dituzte. Elkarren antza dute guztiek: erdian, ikusleari begira, gizakia dugu —emakumea zein gizona—, gertuko plano batean. Militarrak, beharginak eta ikasleak dira denak, ortodoxia leninistak agintzen duen lez. Atzealdean, iragarri nahi duten lorpena. Leloak eta datak osatzen dute kartela. 50 urteko tartean eginak badira ere, ez dago bakoitzaren urtea salatzen duen estilo aldaketarik. Kartelek informazioa baino ez dute ematen; iruzkin bakarreko irudiak dira. Jendearentzat interesgarriak, bitxiak izan daitezkeen materialak erakutsi ez ezik, Casa Asiaren ekimenak artxibo sendoa eratu nahi du, espezializatua ez den ikusle-riak ere eskura izan ditzan arruntak ez diren material hauek.

Jutxea: buruaskitasuna

Ipar Koreakoa munduko estatu komunista-rik itxiena da. Jutxea du oinarri ideologiko. Kim Il Sungenk honela definitu zuen: “Jutxeak esan nahi du iraultzaren zein ondorengo eraikuntzaren jabe bakarra jendea dela”. Rafael Buenok honela azaldu digu Jutxearen mamia: “Kredo berri hori ‘burujabetza’ gisa itzul genezake besterik gabe. Izan ere, bultzatzen zen politikak herrialdeko bizitza politiko, ekonomiko eta sozialaren erdigunean kokatzen zuen, baita Ipar Koreako herritar bakoitzaren bihotzean ere. Fun-tsean, autonomia eta buruaskitasuna oinarri dituen marxismo-leninismoaren aplikazio hau 1955etik ezartzen da, politikan, ekonomin, defentsa nazionalcan eta kanpo-politikan burujabetasuna lortzeko gida ofizial modura. 25 milioi pertsona baino gehiagoren patua gidatu eta nortasuna zaintzen du, munduan beste estatu komunistetan egiten ez den bezala”. ■

argia.com Ipar Korearen egoeraz eta egituraketa politikoaz artikulu mamitsua idatzi zuen Iker Blasek ARGIAren 2.160. zenbakian.

Descenso de Cañones/Espeleología Arroila Jaitsierak/Espeleología
 Puenting/Escalada/Raquetas de nieve Zubi saltoa/Eskalada/Eiur erraketak
 Cursos técnicos/Viajes de aventura Ikastaro teknikoak/Aventura bidaiak
 y mucho mas... eta askoz gehiago...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com

INGURU ABENTURA

Tel: 635 748 948

Liburuak

KRITIKA

Sexualitatean xirikatuz.
Maider Garcia de Vicuña eta Iratxe Porras.
Erein. 350 orrialde. 24 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Musuen paradisia

LIBURU BAT gustatu zaigunaren seinalea, irakurritakoan norbaiti oparitzea edota gomendatzeko izaten da. Irakurri berri dudana liburu bat oparitzeko eta gomendatzeko ezin interesgarriagoa da. Badut iloba bat 16 urtekoa eta iruditzen zait sexualitate marjinalak, prostituzioak, pornografiak eta erotismoak, transexualitateak, homosexualitateak nahiz trabestismoak edo transgeneroak ikasteko oso ondo etorriko zaiola. Liburu honek kontzeptu esparru oso aberatsa du. Kapitulu bakoitza, informazio kapsula bat da. Gustura irakurtzen dena eta luzeran tamaina aproposa duena. Hamar minutu irakurri eta hurrengo egunerako mesanotxean utzi. Hartara, beste liburu bat tartekatzeko aukera ere eskaintzen du.

Hain interesgarria iruditu zait, euskaltegiak irakasleei ere, testu tipologia lantzeko edota irakurmena jorrazteko aproposa begitandu zaidala eta gomendatu diedala. Are gehiago, esparru didaktikoan lana egiten duten lankideei ere, pedagogiaz, generoaz, eta sexualitateaz euskaraz ikasteko nahiz irakasteko oso interesgarria dela aipatu diet. Pedagogikoa, didaktikoa eta gainera komunikatiboa da liburu hau. Gaiak, berriak, lehen esandakoak gain, modu erakargarrian landu dira, jakintza handiarekin alegia. Laranja Erdiaren teoria azaltzeko Aristofanesenganaino jo dute edota Elizak emakumea baztertu duela esateko Maria Magdalenen bazterketa proposatu dute. Jesus eta Maria Magdalena bikote izan ziren susmoa ikerlarien artean gero eta hedatuago dago. "Gutxienez seme bat izan zutela, Judah izenekoa" eta egileek, horren harira, James Cameroren *The lost tomb of Jesus* (Kristoren Hilobi Galduta) dokumentala ikustea aholkatzen dute.

Sorginak ere ez dira falta historiari egindako behatu honetan. "Herriarrek begirunez hartzen zituzten emakume horiek, baina agintariak sorgin berritsutzat hartzen zituzten, eta zientzia jakin batzuk indarra hartzen hasi zirenean (medikuntza, kimika, fisika, farmakologia), lan horietan ari ziren gizonak bat egin zuten Estatuarekin eta Elizarekin emakume horiek erditik kendu ahal izateko".


Zazpi kapitulu dira guztira, eta orain arte esandakoari gehituko nioke, sukalde lanetan aritzeko ere lagungarria suerta daitekeela liburuak dakarren afrodisiakoen zerrenda: dela baratxuria, dela zainburia, azafrana, ginsenga, jenjinbrea, mertxika, melokotoia, kalabaza...

Hainbeste gauzen artean nekeza lirudike desioaren misterioa deskubritzea, baina 350 orrialdetan barrena seguru aurkituko duzula, izan ere, sexualitatearen zirrikitu guztiak ondo miatu eta ikertu baitituzte sexologo hauek, Zakil Jainkotik hasi eta Musuen Paradisurainoko bidaiari. ■

Gizajo baten egunerokoa

Eskuz idatzitako koaderno baten itxura dauka Alberdania argitaletxeak publikatu duen *Rodrick-en legea* liburuak. Jeff Kinneyk idatzitako istorioa aurretik argitaratutako *Gizajo baten egunkaria*-ren jarraipena da. Hainbat hizkuntzatan aurki dezakegu eta Miren Arratibel arduratu da euskarara ekartzeaz. Greg-ek udako oporrak lehen-

bailehen ahaztu nahi ditu, amesgaizto hutsa izan dira ikasturte berria hasi aurreko hiru hilabeteak. Baina zoritxarrez, bere anaia Rodrick-ek xehetasun guztiak dakizki, Gregek betirako ezkutatu nahiko lukeen gertaera horri buruz. Ilustrazioak eta testua uztartuz, umore handiz idatzitako liburua da honakoa. ■



Rodrick-en legea.
Jeff Kinney.
Alberdania.
216 orrialde.
17 euro.

Ninaren ihesaldia

Nina aspertuta dago bere etxeko giroaz, gurasoez... Denaz. Eta alde egin nahi du, ospa, ahalik eta urrunen gainera. Esan eta egin: bere puskak hartu eta Hanburgora abiatuko da, bizimodu berri baten bila. Baina Nina adin txikikoa da eta horrek problema handiak ekarriko dizkio lana eta bizilekua topatu ahal izateko. Ez hori bakarrik: espero ez dituen ustekabeak ere sortuko zaizkio bidean eta ez zaio samurra egingo horiei aurre egitea. Marliese Arold gazte-literaturako idazle ezagunak (*Maitasuna besterik ez* liburuaren egilea ere bada, besteak beste) eskribitu du *Ninak ospa*. Itzulpenak Joxe Mari Berasategi eta Maider Berasategiren sinadura dauka. ■



Ninak ospa.
Marliese Arold.
Elkar.
235 orrialde.
17 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Ganberrismoaren atzeko azterketa sakona



En zugzwang.
Bizardunak.
Gor.
Iraupena: 57'56".
10 euro.

PAREKORIK EZ DAUKAN Iruñeko —nongo bestela?— talde honek astero areto, gaztetxe eta plazak jendez, kritika zorrotzez eta garagardoz blaitzen jarraitzen du. Beraiek asmatutako Folk Radical Vasco delako etiketapean estreinako lanak lagunduta bazter guztiak astindu zituzten hitz pozoitsu bezain oldarkorrekin eta Irlandako folk ganberroena bere eginez. Bigarren lan honekin ere “iraultza pertsonala” egingen jarraitzen dute eta ez dira batere

kikildu, ez horixe. Musikari zehatz errepertzen badiogu, baina, oraingoan Irlandako eta Euskal Herriko folk tradizioaletan gehiago murgildu dira eta abestiak sakonago lantzeaz gain, moldaketak ere ugaritu egin dira. Hala, diskoan zuzenekoaren beste aldea erakutsi digute. Beraiek, ordea, honako hau disko punkyagotzat daukate. Beraiei kontra egiten ausartuko?

www.myspace.com/bizardunak

Jose Maria Carlos - Bizardunak

«Espainiako ezkertiarrek Boliviatik, Venezuelatik edo gipuzkoarrengandik ikasi beharko lukete»

“Inguratutako irla honetatik mugitzen ez banaiz, goseak hilko nau”... Politikoki zauden tokia arriskutsua izan daiteke. Baina ihes egiterakoa, pertsona bera al zara? Askorentzat kontzientzia aldakorra izan daiteke; guretzat, berriz, deabruaren ideiarik nazkanteena.

“Belaunikaldiek utzitako zuloetan landutako ditugu haziak”.

Navarristez ari gara, UPNko traidoreez. Bilduren kontuak izugarri pozten gaitu, baina “real-politik” kontzeptuaren arriskupean kokatuko dira koalizio horren zenbait ideia eta jarrera historiko.

“Amerikara alde egitea” da irtenbidea?

Munduan ez dago paradisu-rik. Hemen egin beharko dugu guda soziala. Internazionalismoa erretorika hutsa da, bakoitzak bere kolektibitatea salba-

tu behar du, Nietzscheren eta Eskorbutoren “todos contra todos” ideari jarraituz. Badira gaur justizia soziala bilatzen duten estatuak, adibidez, Latinoamerikan. Hor daude gure bihotzak.

M15 delakoek ulertu dituzte nafarren nahi eta premiak?

Espainiar ezkertiarrek benetako alderdi komunista behar du eta ez halako ergelkeria. Bolivia edo Venezuelatik ikas dezakete eta zergatik

ez, gipuzkoarrengandik. Argi dago zein den bidea: herriz herri lan egin, gizartea politizatu eta hauteskundeetan indarra erakutsi. Irabazi eta gero legistatu. Hugo Chavezek bezala. Hau da XXI. mendeko iraultza.

“Ez dakit ADNa edo MDMA den...” gisako esaldi-perlek erakusten dute hankak dituzuela modernitatean eta tradizioan...

Orainaldia iraganaren semea da. Iragana ulertu ezinik dabilzanak


ez dute inoiz oraina ulertuko. Guk iragana aztertu dugu kulturalki, musikalki, historikoki eta politikoki, proiektua gauzatzeko. Ez gara talde cool bat, ez gara unibertsitateko joan, ez dugu musika elektronikoa erabiltzen eta ez gara PSO-Eren mugimendu indie horren titietatik elikatzen, baina egitaz hurbilago gaude, ez izan zalan-tzarik. ■



Ezpalak

JON TORNER

‘EITB Nahieran’, telebista menua ikusleak gura bezala



‘EITB NAHIERAN’ atariak (www.eitb.tv) irrati eta telebistako edukiak bilduko ditu: zuzeneko emisioak, aurreko egunetako emanaldiak eta artxi-bo historikoa. Atal horrek azken urteetako

albigestegi guztiak eta aspaldiko kirol emanaldiak jasoko ditu, besteak beste. Iñako Gurrutxaga Eitb.com-eko entretenimendu edukien zuzendariaren arabera, proiektuaren helburua herritarren eskura “almazen handi bat jartzea” da, “edukiak nahi duten eran eta moduan entzuteko eta ikusteko”. Bere ustez, ordea, “benetako urratsa litzateke edukiak deskargatu ahal izatea”, baina “arazo juridikoak daude tartean”.

Gipuzkoako museo birtuala

HISTORIAREN eta ondarearen inguruko Gipuzkoa Geroztik museo birtuala sortu du Foru Aldundiak. “Gipuzkoako iragana ezagutzeko aukeraz gain, orainaz hausnarketa egin ahal izatea eskaintzen digu museoak”, diote sustatzaileek. 60 ikus-entzunezko, 300 irudi baino gehiago eta 50 joko eta aktibitate ludi-ko bildu dituzte gero eta eduki gehiago izango duen www.gipuzkoamuseobirtuala.net webgunean. Gipuzkoako historiara hurbiltzen gaituen erakusketa iraunkorra; gai historikoak gaurki ikuspegitik jorratzea xede duen aldi bateko erakusketa; areto didaktikoa; dokumentazio aretoa eta erabiltzaileei eskainitako gunea aurki ditzakegu bertan.

Bertsozale Elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentroak Interneten jarri du bere katalogoa, <http://bdb.bertsozale.com> helbidean. Bertso saioen agenda, txapelketa eta sariketen inguruko informazioa, 400 biografia-fitxa, bat-bateko bertsoen mp3 fitxategiak (6.500 inguru) eta doinuen midi, pdf eta mp3 fitxategiak bildu ditu webguneak.

Jackson Pollock, Willem de Kooning, Antoni Tapies, Alberto Burri, Ellsworth Kelly, Piero Manzoni, Victor Vasarely eta Karel Appelen lanak daude ikusgai, besteak beste, Bilboko Guggenheim museo-ko *Pintura abstraktua, 1949-1969 Guggenheim bildumen aukeraketa* erakusketan. II. Mundu Gerraren ostean Europan eta AEBetan gertatutako sormen eztandaren lagina bildu du Guggenheimek, 60 artista-ren 80 margolan guztira.

● **Amaia Ibañez Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak elkarteko koordinatzaileak Bizkaie! webgunean:** “Gaur egun bizi dogun egoerea momentukoa zala pentsetan genduan, ez zala luzaroko kontua, baina orain epe luzerako izango dala uste dogu. Sistemea aldatu egingo da, eta guk moldatu beharra eukiko dogu. Beste alde batetik, sano ardurata gagoz ikuskizun asko ez diralako programetan: produktzioaren eta erakustaldien artean etena dago, antzezlanek ibilbide laburra daukie. Ikuskizunak produzidu bai, baina ostean ezin ditue eszenaratu. Administrazioekaz eta Sareagaz beharrean gabilz ikuskizunek erakustaldi gehiago eukiteko, aukera gehiago eukiteko. Diru-laguntzinoen inguruan be lanean gagoz, izan be eredua aldatzea gura dogu”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Iruñeko Planetarioa
Antso Ramirez kalea, z/g Iruñea
www.pamplonetario.org

Abarrak

MIKEL GARCIA

Ekonomiaren kalanbreak

The Shock Doctrine. Zuzendaria: Michael Winterbottom, Mat Whitecross. Dokumentala. 79 min. AEB, 2009.

MERKATU LIBREAN oinarritutako ekonomia ez da aurrera atera demokrazia eta askatasun giroan, herri-tarrek hala eskatu eta bultzatuta, baizik shock, krisi, larrialdi, hondamendi, gerra... garaiak aprobetxatuz eta, hainbatetan, inposatuta. Aski da etsai bat asmatzea, mamua, edo jendearen noraeza baliatzea, *zas!* eredu ekonomiko liberal bortitza ezartzeko. Hori da gure zinemetara iritsi berri den *The Shock Doctrine* dokumentalaren ardatza, Naomi Klein ekonomialariaren liburuan oinarritua.

Abiapuntua 1976ko Ekonomia Nobela jaso zuen Milton Friedman estatubatuarraren talka ekonomikoaren terapia da, merkatuaren erabateko askatasunean errotua. Eredu ekonomiko hori Pinochet-en Txilen, diktadura garaiko Argentinan, Malvinetako gerraren osteko Ingalaterran... nola ezarri zen aztertzen du filmak, beldurrean oinarritutako ekonomiara iritsi arte,

irailaren 11z geroztik. Irak izan da inoizko gerrarik pribatizatuena, mundu osoan gertatzen ari denaren adierazle: dena da pribatizagarri, eta ondorioak latzak direla erakutsi du historiak: langabezia, pobrezia, oinarrizko zerbitzuen gainbehera...

Simplifikatzea egotzi ahal zaio liburu-dokumentalari, historiako erabaki eta urratsen atzean faktore ugari eragiten dutelako, baina dokumentu interesgarria da azken 30 urteotan nagusitu den kapitalismo basatiaren ibilbidea, lardakeria eta azpikeria politikoa berresteko. Gainera, eskertzekoa da Michael Winterbottom zuzendari britainiar handiaren ukitu serio eta zuhurra, Michael Moore-n moduko estilo teatraletik urrun.

Pelikula amaieran, esperantzarako eta kalera irteteke deia: shockarekiko ikaragaitz bihurtzen ari omen gara. Izango al da azken krisi hau, deskarga berri baterako baino, eredu honetatik ateratzeko bidea? ■



MASTER OFIZIALAK EUSKARAZ 2011/2012 <http://www.ikasketak.ehu.es>

- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza
- Euskal nazionalismoa XXI. mendean.
<http://www.euskalnazionalismoa.ehu.es>
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia.
<http://www.hizkuntzalaritzaeuskalfilologiamastera.ehu.es>
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua.
<http://www.hizkuntzarenazterketaprosesamendua.ehu.es>
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-mastera.
<http://multimediakomunikazioa.info>



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Errusian


Amonak neskatala txikia oheratu berri du. Muxua eman eta gelatik ateratzear dagoenean, ordea, galdera hau egin dio haurrak:

– Amona, Lenin zintzoa al zen?
– Bai, ilobatxo. Lenin zintzoa zen.



– Eta Stalin? Stalin ere zintzoa al zen?
– Eeez! Stalin gaiztoa zen! Oso gaiztoa, gainera!
– Eta Putin, zer izan da, zintzoa ala gaiztoa?
– Oraindik ez dakigu. Hiltzen den arte itxaron beharko dugu!

Soluzioa



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak

Osasuna

JABIER AGIRRE

Escherichia coli dela eta...

MAIATZEKO AZKEN EGUNETAN albiste lazgarriak jaso genituen Alemaniatik, eta egunero alarma-zantzu berriekin esnatzen gintuzten hedabideek: *Escherichia coli* *Enterohemorragica* bakterioak eragindako brote toxiko-infekziosoa omen zen, eta hildako kopuruak gora egiten zuen bitartean, gaitza nondik etor zitekeen asma ezinik ibili ziren agintari sanitarioak.

Horrelako egoera batek izua sortzen du. Nola da posible gurea bezalako gizarte industrializatu batean aspalditik ezaguna den eta itxuraz kontrolatuta dagoen bakterioak horrelako triskantzak eragitea? Zein zen infekzioaren iturria? Nola gaingitu dira osasun-adituek ezarritako segurtasun eta prebentzio-neurriak? Hurrengo lerroetan zalantza horietako batzuei erantzuten saiatuko naiz.

Zer da *E. coli* bakterioa?

Animalia askoren –azien– da eta granjako hegazti gehienek – eta gizakiaren hestean bizi da *E. coli*. Zepa gehienek ez dute urdail-hesteetako gaixotasunik sortzen, baina beste gorputz-ataletara iristen bada –uretrara edo emakumeen maskurira– edo baita jaioberrien, zaharren edo immunoeskasiak dituztenen odolera ere, gaitzak eragin ditzake. Aurreneko kasuan gaixotasuna arina izango da, baina bakterioa odolera igarotzen denean, larria izan daiteke.


Hesteetako lesioak sortzen dituzten zepak aipatu behar dira batetik, eta batez ere sindrome hemolitiko-uremikoa izeneko konplikazioa eragiten dutenak: giltzurruneko gutxiegitasuna, anemia hemolitikoa –globulu gorriak hautsi egiten dira–, tronbozitemia –plaketa kopurua gutxitu egiten da– eta, batzuetan, heriotza. Zepa arriskutsu hauek gutxitan agertzen diren arren –kasu guztien %5etik behera–, Alemanian horiexek nagusitu dira.

Animalien gorotzak –nahiz eta animalia horiek gaitzik eduki ez– eta *E. coli*-k eragindako beherakoak dauzkaten pertsonen eginkariak dira kutsatzeko iturriak. Eta transmisio-bidea *coli*-a daukaten eginkariekin kutsatutako elikagaiak izaten dira normalean. Gutxiagotan bada ere, otorduen aurretik garbitu ez diren objektuak edo gure eskuak izan daitezke infekzioaren iturri, lehendik bakterioarekin kutsatuta bazeuden, infekzioa elikadurarekin batera ahotik aparatu digestibora iristen delako. Hala, pertsonak elkar kutsatzeko aukera aipatu da hedabideetan, oraindik horrelako kasurik frogatu ez bada ere.

Zergatik da hain hilgarria *E. coli* piztaldi hau?

Aipatutako *Escherichia coli* zepa horiek ume txikiak erasaten dituzte gehienbat, eta infektatutakoen %5-10ek sindrome hemolitiko-uremikoa gara dezakete. Ez da ahaztu behar sindrome hori jasaten duten gaixoetatik %5 inguru hil egin daitekeela tratamendu mediko egoia jaso arren, eta beste portzentaje handiago batek dialisia edo giltzurruneko transplantea beharko duela.

Hedabideetan agertutako datuei erreparatzen badiegu, Alemanian pertsona helduak erasan ditu gehienbat bakterioak, gehiago emakumeak gizonezkoak baino, eta sindrome hemolitiko-uremikoarekin ingresatutako pertsonetatik %10 edo gehiago hil dira –azken egunetako datuek agian proportzioak aldaraziko dituzte–, beste batzuetan ikusi izan diren hilkortasun-tasak ia bikoiztuz. Datu gehiago eskuratu ondoren jakin ahal izango dugu *E. coli*-aren serotipo horiek birulentoagoak izatea ote zen heriotza-tasa handiago horren arrazoia, edo gaixoen hilkortasuna erraztuko lukeen gaitzen bat bazuten lehendik.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Negar malkotan

PAISAJISTOK PAISAIK SORTZEN DITUGUNEAN, erabiltzaileak izango diren izaera eta premietara makurtu izan ohi dugu gure lanaren mamia. Mendearen hasierarekin mendi aldera joan nintzen bizitzera eta inoiz bukatuko ez dudana paisaia baten sorkuntzan murgildu: etxeko sailak.

Katuaren mugarraren barruan, etxe-kontran dezenteko pendiza dugu. Aldapa tzarra eta ez ikusiarena ezin egin, eta ezkutatu edo gainzuritu beharrean malakarra indartzea irtenbide egokiena. Baso bat landatuz, zuhaitz eta arbolaren adarrez eta hostoz, eite osoaz, jauzi are eta handiago bat eraiki. Kolore, forma eta egitura desberdinetako hostajeak nahasiz, bata bestearen gainera boteaz malda izugarri bat lortu nahi dut.

Bertagi dagoen aldapa izugarritu eta neure izaerara makurtu. Ezagutzen nauenak badaki: negartia naiz. Malkoen emana zuhaitzen alimaleko akiti batera eramanez.

Gain gainean pago negartia, *Fagus sylvatica* "Pendula", hamar bat, urteen poderioz egundokoak egingo dira eta atzealdeari sekulako sakontasuna erantsiko diote. Hauen azpian fruitu arbola negartia: *Prunus subhirtella* "Pendula" gereziondo dotorea, udaberriko petalo finezko lainoa. Aldamenean sagarrondoak, hibrido negartia hauek ere: *Malus x scheideckeri* "Red Jade" eta *Malus x* "Royal Beauty". Lehenaren lore zuria gorrietatik sagar txiki gorri-gorriak sortzen dira eta hostaje guztia erorita ere han segitzen dute neguan txantxangorrien pozerako. Bigarrenak hostaje guztia du gorri iluna eta ilunagoko gorrikoak dira udaberriko lore arrosa bizietatik etorritako sagar koxkorak, hauek ere neguko hotzaren mokoek jaten dituzten arte.

Baso negarti honen beheko barreneko muturrean, zuhaitz eta arbola guztien azpiko aldean, negar hauen malkoak xukatuko dituen arbola dago: *Davidia involucrata*. Zein?

Azeri-buztana

Geure osasunerako maiz erabiltzen da azeri-buztana, *Equisetum arvense*. Milioika urteko historia duen familia bateko azken partaideetako bat da. Erreparatu bere itxurari, ez al da prehistorikoa? Azeri-buztana berezia da, eitez eta mamiz. Mamiaren osagaien berezitasun hori du sendagai, guretzat eta beste landareentzat.

Azeri-buztanak izugarritzko lanak egiten ditu. Orokorrean beste landareak indartu eta gorriak, zanbroak eta zurinak bezalako gaitzei aurre egiteko kemena eranstean die. Nekazaritza biodinamikoan urtean behin edo bitan lurra ongarrizteko gaia da: 50 gramo landare hiru bat litro uretan ordubetez irakin, iragazi eta hogeit hamar litro ur osatu. Claude Aubert alimaleko maisuak zorriak atzeratzeko ere balio duela dio eta honela egiten du: 150 gramo landare lehor hamabost litro uretan ordubetez egosi. Renaud eta Dudouetrek honela egiteko diote: 200 gramo hosto berde edo 50 lehor 24 orduz beratzen hamar litro euri-uretan, tapatutako ontzi batean hogeit minutuz irakin, hozten utzi eta egun bete beranduago iragazi eta sasoi bero eta hezeetan bizpahiru astez behin landareak busti, ekaizen ondoren batik bat. Azken hauek, irakin gabeko ura ere ona dela diote: lehengo formularen adina azeri-buztan euri-ur horietan zenbait egunez beratzen eduki eta iragazi. Lurra eta landareak bustitzeko erabiltzen da. Honi 100 gramo xaboi beltz erantsiz gero, zorriak eta armiarma gorriak desagerraraziko ditu.



JAKOBA ERREKONDO



L O R E D E N D A

☎ 948 225 179
Kale Nagusia, 70 · Iruña

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Erregeari ipurdia garbitzeko ohorea

LONDRES, 1527. Sir Henry Norris Ingalaterrako errege Henrike VIII.aren *Groom of the Stool* izendatu zuten. Norrisek Sir William Compton ordezkatu zuen zeregin horretan, eta hamar urtez eutsi zion tituluari. Ondoren, Sir Thomas Heneagek beste hamar urtez bete zuen zeregina eta, azkenik, Sir Anthony Dennyk urte bakar batez eutsi zion karguari, erregea hil baino lehen. Izenaren aurreko “sir” horrek pertsonaion noblezia adierazten duen arren, *Groom of The Stool*en itzulpenak ez du halako kutsurik; “gorozkien zerbitzari” esan nahi du, hau da, aipatutako laukoteak erregearen sabel-husteez arduratzeke ohorea izan zuen.

Gorozkien morroien lanbidea noiz sortu zen garbi ez badago ere, Ingalaterrako gortean mendeetan aritu zirela badakigu. Erregearen zerbitzupuan zeuden soilik, eta haien egitekoa agintariari iraitze funtzioan laguntzea eta, ondoren, hondakinak garbitzea zen. Baina erregearengandik hain “huribil” egoteko aukera ematen zuenez, postuak gero eta garrantzi handiagoa izan zuen. Erre-



HANS HOLBEIN

Henrike VIII. a Ingalaterrakoak (1491-1547) lau “gorozkien zerbitzari” izan zituen bere erregealdian, baina jarduera ohoragarria berehala desagertu zen.

emakume bati egokitu zitzaion zeregina. Baina hurrengo urtean erreginak kargua bertan behera uztea erabaki zuen. Dena den, agintariei ipurdia garbitzeko ohitura, literalki ez bada ere, bizirik dago oraindik.

gearen konfiantzazkoak ziren eta haren idazkari izatera ere iritsi ziren. Henrike VII.aren (1457-1509) agintaldian zergak ezartzeko eskumena lortu zuten ipurdi garbitzaileek. Horrenbestez, ingeles nobleziako familia nagusien artean hain kargu ohoragarria lortzeko lehia gatazkatsuak izan ziren.

Baina ofizioaren hurbiltasunak, pribilegioez gain, arriskuak ere bazituen. Aipatutako Sir Henry Norrisi Anne Boleynekin sexu harremanak izatea egotzi zioten, eta Henrike VIII.ak lepoa moztea erabaki zuen, geroxeago Anne berarekin egin-go zuen bezalaxe. Horrela eskertu zion erregeak Norri sek urtetan eskainitako zerbitzu berezia.

Gorozkien zerbitzarien tradizioak ez zuen luze iraun. 1558an, Elisabet I.ak koroa jantzi zuenean, lehenengoz

Arrastoak

Gaddafi Leptis Magna erabiltzen ari da erasoak saihesteko

GADDAFIEN erregimenaren aldeko indarrek munizioa eta Grad koheteak Libiako kostaldeko Leptis Magna aztarnategian gorde dituzte, *The Times* egunkariaren arabera.


Hiria K.a. II. mendean fundatu zuten feniziarrek. Ondoren, kartagoa-

rreren eta erromatarren esku egon zen. 1982an aztarnategi oparoa Gizadiaren Ondare izendatu zuen Unescok. NATOk halako altxor arkeologikoa suntsituko ez duelakoan, Gaddafiren indarrek babesteko toki aproposa dela erabaki dute.



SACHA COACHMAN

Javier
Olaberri



• TERMOMETROA

Donostia, 1952. Ingeniari elektrikoa. Zentral nuklearren kontrako borrokan engaiatua ibili zen 1970eko hamarkadan. AEBetako Harrisburgen izan zen 1979an Euskadiko Ezkerra alderdia ordezkatzuz, istripuari buruzko informazioa jasotzeko. Eusko Legebiltzarreko parlamentari eta Donostiako zinegotzi izan da hainbat urtez. Egun, abokatu lanetan dihardu.

URKO APAOLAZA
Argazkiak: Dani Blanco

«Nuklearrena liberalismoari lotutako arazoa da»

Zer gertatu da Fukushima?

Ez dakigu. Nuklearren kontua beti egon da sasi-informazioari eta sekretuari lotuta. Gauza bat da inpaktu mediatikoa eta bestea teknikoa. Hori ulertzea oso garrantzitsua da, kaze-taritza hildakoez bizi delako, baina teknika ez. Harrisburgen demostratu zen zentral nuklear batek eskuetatik ihes egin dezakeela, garrantzitsuena ez da zergatik egiten duen ihes, baizik eta ihes egiten duela. Fukushima-ri dagokionez jatorria tsunamian dago, larrialdiko energiaz elikatzen zuten dieselak joko zkanpo utzi zituelako. Baina horrek istripu larria sortu beharko luke, eta ez hondamendia. Noski, orain badakigu tsunamia gertatu eta bi ordura erreaktoreak urtzen hasi zirela.

Eta ba al zekiten?

Nik uste ezetz, baina hain handia da

deskontrola... Erreaktore nuklearreko agente-panela pentsatuta dago zerbaitek huts egiten badu abisua emateko, baina egiazko zerbaitek pasatzen denean, ehun aparatu jartzen zaizkizu gorritz, ordenagailuak ordu erdi lehenagoko gertaerak seinaltatzen ditu eta kontrola galtzen duzu. Zer ari den gertatzen? Ez dute ezta ideiarik ere. Zentral batek izan dezakeen arazorik larriena da uranioaren geometria galtzea, berezko errekontza moduko bat gertatzen da eta uranio hori urtzen hasten da. Uranioa urtuko balitz, teoriar erreaktorearen azpitik ere igaro liteke, baina hori jadanik ez dago zure menpe, uranioaren menpe baizik. Hori gertatu da Japoniarren, bi ordutara. Baina zer *katxarro* zuten, dieselak huts eginez gero, kontrola bi ordutan galtzeko? Bada bai, bi ordutarako erreserbak besterik ez zituzten.

Zergatik uste duzu saiatu dela TEPCO enpresaren informazioa atzeratzen?

Ezkutaketaren kultura bizi direlako, ezin dute onartu euren etxean Txernobyl bat gertatuko zaiela. Zentral nuklearra adoratu beharreko makina bat da, Elizaren moduan. Zuk ezin duzu Pilare birjina aurkeztu makila bati erantsitako irudi bat balitz bezala. Badaude arrazoi ugari bultzatzen dutenak gezurra esatera.

Baliteke enpresak istripuaren larritasuna ez onartzea ardua ekonomiko-etatik ihes egiteko...

Ez. Kontu psikologikoa da zuzenbidezkoa baino. Beraiek ez diote inolako ardurari aurre egin beharko, salbuespen legala dute 1960ko Pariseko Hitzarmenaren bidez. Zentral nuklearrak egiten hasi zirenean, ondo zekiten seguruak ez zirela eta



“Gertakariei egin behar zaie kasu, eta gertakariak diote nuklearren jabeek beti eskatzen dutela ardura zibilen salbuespena”

baldintza bezala jarri zuten hori. Giza aktibitate industrial guztiek dute ardura zibila, zentral nuklearrak izan ezik. Hauen kasuan 700 milioi eurokoa da errektore bakoitzeko, kopuru lotsagarria. Beraz kultura arazoa da, nik sekulako kotxea badut, nola esango dut tuntuna naizela eta ez dakidala bizikletan ibiltzen ere?

Zein egoeratan dago momentu honetan Fukushima? Hemendik aurrera zer gerta liteke?

Errektorearen nukleoa urtuta dago eta hondakinen piszinak urarekin hozten segitu beste erremediorik ez dute. Pentsatzekoa da potentzia jaisten joango dela eta nahikoa diesel mugikor izango dutela beharrezko ur emaria edukitzeko. Ideia bat egiteko: Lemoiz bezalako zentral batek autopistako tunel baten ahoaren tamainako ur emaria behar luke, potentzia %10era jaitsiz gero, hamar aldiz txikiagoa... Orain 200.000 metro kubo ur dute erradiazioz kutsatuta, zati bat itsasora bota zuten eta begiak itxiko bagenitu beste guztia bihar bertan botako lukete. Dena kontrolpetik kanpo dago, baina esparru baten barruan. Esaten dute medikuntzak gerra garaian egiten duela aurrera, bada hemen fase horretan gaude.

Segurtasun nuklearraren mitoarenak egin al du? Txernobylen ondoren ere hori esaten zen baina...

Mito hori jada ez da existitzen. Beno, hamarkada batzuk barru auskalo, badago jendea Elvis Presley bizirik dagoela uste duena. Gertakariei egin behar zaie kasu, eta gertakariak diote beraiek, nuklearren jabeek, beti eskatzen dutela ardura zibilen salbuespena. Esaten dute ez dela hildakorik izan; “hau bada gertatu den guztia...” errepikatzen dute. Ez, hildako kopurua zuk kontrolatzen ez dituzun faktoreen esku dago. Emaizta amaieran jakingo duzu, eta ez hasieran. Joko zoli horretan dago amarru politikoa.

“Krisi nuklearretan emaitza amaieran jakingo duzu, ez hasieran. Hor dago amarru politikoa”

Alemaniak bere zentralak ixten joateko hartutako erabakia, nuklearrak eraisten hasteko lehen pausoa izango al da?

Bai. 1970eko hamarkadan, nuklearraren konplexutasunaz ohartzen lehenak amerikarrak izan ziren eta zentralen produktioaren kurba jaitsiz joan ziren, 1979an erabat gelditu zuten arte. Orain, 40 urte geroago, CO2aren kontuarekin batzuek behatza jaso eta zentral gehiago egiteko eskatzen hasi direnean, Fukushima hankaz gora jarri dizkie asmo guztiak. Erabakiak hartzen lehenak beti izan ohi dira teknologia horretan jantzienak, arrazoren bat egongo da. Alemaniak iritzi publiko indartsua du eta Merkel bera fisikari nuklearra da, eta onartu du uste zuela hori kontrolatuago egongo zela.

Badaude herrialde batzuk, ordea, euren programa nuklearekin segitzen dutenak (Britainia Handia, Frantzia...), Frantziako EDFk indar handia du.

EDFk 58 zentral ditu, baina urteak dira ez duela bat bera ere egiten. Frantziak, honek funtzionatzen duela esateko bere buruari zentral bat erosi zion. Baina ez dute gehiagorik saldu, Finlandiari saldu zioten bakar bat, eta kaos ekonomikoa izaten ari da.

Zure arabera, diru laguntza publikorik gabe, zentral nuklearrak ez lukete zentzurik izango.

Liberalismo arazo bat da. Oso ezkerrekoa bazara, zure iniziatibaz gertuko dituzu zentralak, eta oso liberala baldin bazara, finantzazio faltagatik. Estatu kapitalista antzeko batean bizi diren herrialdeetako errektoreek soilik irauango dute. Zentral nuklearrak beti behar izan dituzte subentzioak eraikitzeko eta esplotatzeko, jendeak energia merkea dela uste duen arren. Pasatzen dena da, hainbat modu daudela inplizituki laguntza hori emateko.

(...)

Horietako bat oso agerian geratu da orain: ardura zibilaren salbuespena. Historian egon diren istripuekin kalkulua eginez gero, errektore bakoitzeko 1.000 milioi euro ordaindu beharko lukete, 450.000 milioi euro 450 errektoreengatik. Bielorrusiak dio Txernobyleko istripuak soilik 160.000 milioi euro kosta diola, begira zein zifraz ari garen. Bestalde, zentralak eraisteak izugarritzeko kostua du, eta hori estatuaren kontura doa. Espainiak badu plan bat, 14.000 milioi eurokoa, bere zortzi errektoreentzako, tarifaren gaineko errektore baten bidez biltzen duena. Hau da, ikatza kon-

“30 urtetik gorako zentralak txatarra nuklearra dira”

Garroña Fukushima-ren ahizpa dela diote. Zein arriskuren aurrean aurki gaitzek?

Beno, lehengusuak dira. Denak dira igualak. *Fukushimakadaren* ondoren jende guztia gai sismikoei begira jarri da. Bada-go ikerketa bat, eta nik lehen eskuko informazioa dut, deskubritu duena failak daudela egon behar ez ziren tokian, eta horietako faila bat Katalunia erdi-erdetik igarotzen dela dio. Artikulu hori publikatzean sekulako aldaba kolpea izango da.

Baina hozteko sistema, adibidez, nola dago Garroñan?

Hozte sistema Ebron oinarrituta dago eta lehorteak daudenean arazo handiak dituzte. Pentsa ezazu luizi bat dagoela edo uholdeak... Rodano ibaian, uholde batek eramandako materialek zentral nuklearreko uraren pasoa blokeatu zuten behin, eta zortzi ordu behar izan zituzten hura libratzeko. Rodanokoa PWR sistemakoa da eta zortzi orduko autonomia du. Garroña izan balitz ez luke agoantatu-

ko, BWR sistemakoa delako. Nik ez dut Garroña barrutik ezagutzen, baina nire susmoa da ordubeteko segurtasun denbora besterik ez duela, BWR motako zentralak hala dutelako, Japoniakoak bezala.

Zapaterok zentralen bizitza luzatu zuten.

Ramon Jauregui galdetu nion ea zertan zebiltzan, zergatik ez zituzten Garroña eta Cofrentes ixten, eta erantzun zidan Valentziako kosta elektrizitate gabe geratuko zela. Uzteko esan nion. Orain energia plan bat atera da hurrengo hamar urteetarako eta funtsezko zerbaite esan du: potentzia elektrikoa hain dago sobe-ran Espainian, 2020ra arte ez dela inolako zentralik egin behar izango, gasezko guztiak gutxiegi erabilita daudelako.

Hala ere, 2013ra arte hor egongo dira, eta PPK esan du boterera iristen bada ez dituztela itxiko...

Itxiko dituzte guk nahi badugu, iritzia publikoaren kontua da.

Nola kaltetu dezake erreaktorea denboraren joanak?

Norbaitek ezagutzen al du 40 urte baino gehiago duen instalakuntza industrialik? Nuklearretan, erreaktoretik igarotzen den ura kutsatu egiten da eta materialen erresistentziari eraso egiten dio. Horregatik, zentral hauek presio gutxiagorako diseinatzen dira, termikoek baino tenperatura baxuagoa izaten dute, eta ahalik eta altzairurik onenak jartzen dizkiete. Egiaz, kalitatea galtzen duzu, nahi izanez gero elektrizitate gehiago sor baitezakezu, baina inor ez da fio. Ez gara hitz egiten ari mendeetan altzairuaz bildutako esperientziak, zentral nuklearrek soilik 40 urte daramatzate martxan. Zentralak egin zirenean, 30 urtetarako egin ziren, hortik gorakoa txatarra nuklearra da, oso ondo margotua, hori bai! Ikusi duzu Garroñako aginte-panela nolakoa den? 1960ko zientzia fikziozko pelikula batekoa dirudi. Orduan oso dotorea izango zen, baina orain barre gurea ematen du... Bada hori, barre egiteko modukoa da.

tsumituz nuklearra ordaintzen duzu, ura kontsumituz nuklearra ordaintzen duzu, eta eolikoko elektrizitatea kontsumituz ere, nuklearra ordaintzen ari zara; erreaktore bakoitzeko 1.700 milioi euroz ari gara. Eta hirugarren modu bat badago: nuklearrek, erregimen bereziko energiak bezala, lehentasuna dute ziklo konbinatuetako plan-tan aurrean.

Arriskutsuak dira, eta gainera ez dira errentagarriak. Zergatik tematzen dira batzuk horiek defendatzen?

Sistema hor dago eta lobby izuga-

rria da. Behin inbertsio bat eginda funtzionatzea interesatzen zaie. Arazoa da inork ez dakiela nola funtzionatzen duen merkatu elektrikoaren banaketak, sekretu handi bat da. Sistema hori abolitu den lekuetan jadanik ez dira zentralak egiten. Arriskutsuak dira, oso garestiak, eraikitzeak mantsoak... *koñazo* bat dira. Gainera, energia nuklearra munduko energiaren %5-6 besterik ez da. Konparazio-rako: 2010ean energiaren hazkunde-a %5ekoa izan da eta ez da zen-tral nuklear berririk martxan jarri. Energia nuklearraren mitoia,

“bakerako atomoena”, ez da inoiz egia izan. Baina eztabaida hori 1970eko hamarkadan ere izan genuen eta pentsatu zen energia ziztrin hori sortzeko ez zuela merezi. Orain berriz datoz matra-ka horrekin... Zer uste dute, duela 30 urte baino tuntunagoak garela?

Iraganeko zama bat dira, beraz?

Hori da. Beno, badu “abantaila” bat, horrekin bonba atomikoak egi-ten dituztela. Ez dezatela esan ez duela bata besterekin zerikusiri-rik... ■

We received the text the other day.

Beste Lehengo egunean testua jaso genuen.

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala
INGELES | EUSKARA | GAZTELANIA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

Azpea
NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com



SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

Elikadura krisia

Urritasuna ala espekulazioa?

2011ko urtarrilean elikagaien prezioen indizeak marka historikoa lortu du, FAOren datu ofizialen arabera. Horrek beste elikadura krisialdi bat etorriko ote den kezka piztu du, munduko pobrezia areagotzea eta aldaketa sozial nahiz politikoak, Magreben eta Ekialde Hurbilean gertatzen ari direnak bezalakoak, eragin baititzake.

DANIEL UDALAITZ



JACK PICONE / OXFAM

Munduko Bankuaren arabera, prezioen igoerak, joan den ekainetik, beste 44 milioi pertsona eraman ditu pobrezia.

OTSAILAREN 3AN, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO), adierazpen asaldagarria zabaldu zuen. Hauxe zen adierazpenaren mezu nagusia: “2011ko urtarrilean elikagaien prezioen indizeak marka historikoa hautsi zuen. Lehenengoz, 231 puntu gainditu zituen batez beste, eta 2007a baino lehen ez zen sekula 120 puntutik gora iritsi”. Handik hamar egunera, Munduko Bankuak jakinarazi zuen prezioen igoerak,

joan den ekainetik, beste 44 milioi pertsona pobrezia eraman dituela.

Datu horiek alarma guztiak piztu dituzte, dagoeneko munduko pobrezia areagotzea eta dozenaka milaka haur hiltzea eragiten ari den beste elikadura krisialdi bat datorkigulakoan. 2010eko ekainetik, prezioek gora egiten jarraitzen dute, 2008an iritsitako mailatik hurbil. Horixe dio Munduko Bankuak otsailaren 14an Washingtonen aurkeztu zuen txostenak. Egoera hori,

garabidean dauden herrialdeetan elikagaien prezioak hainbeste garestitzea, izan da, hain zuzen, Magrebeko eta Ekialde Hurbileko herritarren amorrua piztu duten arrazoi nagusietakoa, Tunisiako, Egiptoko, Libiako, Yemengo eta Bahreingo erreboltek adierazten dutenez.

Afrikan, artoarengatik salbatuta

Munduko Bankuko elikagaien prezioen indizearen azken edizioaren arabera, 2010eko urria eta 2011ko

urtarrila bitartean, %15 egin du gora, aurreko urtean baino %29 gehiago, eta soilik 2008an lortutako maximoa baino %3 gutxiago.

Laboreen artean, gariaren munduko prezioak izan ziren gehien igo zirenak, 2010eko ekainetik 2011ko urtarrilera bikoiztu ondoren. Artoaren prezioak %73 inguru egin zuen gora, baina arrozaren prezioa beste labore batzuk baino mantsoago hazi zen, eta hori funtsezkoa da munduko pobre askorentzat. Azukreak ere jateko olioen prezioak ere asko igo dira. Herrialde askotan dieta anitzarentzat funtsezkoak diren beste elikagai batzuen prezioak ere igo egin dira, hala nola barazkiak Indian eta Txinan eta babarrunak Afrikako zenbait herrialdeetan.

Lehengaien prezio igoeraren ondorio nagusia pobrezia areagotzea da. “Elikagaien prezioak maila arrisurtsuetara iristen ari dira eta munduko milioika pertsona pobreentzat mehatxua da hori”, adierazi zuen BM taldeko presidente Robert Zoellickek. Eta zera erantsi zuen: “Prezioen igoerak milioika pertsona pobreziara daramatza eta zama izugarria da sektore ahulentzat, diru-sarreraren erdia baino gehiago elikaduran xahutzen dutenentzat”.

FPWren arabera, prezioen igoerak, muturreko pobrezia (eguneko 1,25 US\$ baino gutxiago) handitzeaz gain, elikadura urritasuna areagotzea dakar, pobrenek gutxiago jaten dutelako, eta elikagai merkeagoak eta hazkurri balio txikiagoa dutenak erosi behar dituztelako. Gogoan izan, MBaren arabera, egoerak 44 milioi pertsona baino gehiago pobreziara bultzatu dituela.

Arabiar eremuko errebolten metxa soziala

Tunisian, Egipton eta Libian errebolta sozial eta politikoak piztu dira, Magrebeko eta Ekialde Hurbileko beste herrialde batzuetara zabaldu dira, eta munduko beste eremu batzuetara jauzi egin dezakete. Matxinada horien jatorriak zerikusi handia baitu elikagaien prezio igoerak, gazteen langabeziak eta ondasunen banaketa bidegabeak larriagotzen duten pobrezia egoerarekin. Herrialde horiek menpekotasun handia dute oinarritzko lehengaiekiko, esaterako, arrozarekiko eta gariarekiko –ogia egiteko oinarritzkoa—. Lehengai horiek garestitzeak azken hilabeteetan salneurriak %10 inguru haztea eragin du.

Saudi Arabia munduko bigarren petrolio ekoizlea da (eguneko 10 milioi upel inguru), eta lehena erreserbei dagokienez (260.000 milioi upel inguru). Baina ondasun horrek ez du esan nahi herritarrek erosteko ahalmen handia dutenik; biztanleko errenta 12.920 eurokoa da, Espainiakoaren erdia inguru (24.300 euro) eta Frantziakoaren ia herena (33.300 euro)

Aberastasunaren banaketa bidegabea Magrebeko eta Ekialde Hurbileko errebolten eragile nagusietakoa da, zalantzarik gabe. Petrolio ekoizten duten herrialde gehienetan dagoen arrakala hori are nabarmenagoa da petroliorik ez dutenetan. Herrialde horietan biztanleko errenta Europakoa (23.600 euro) baino askoz txikiagoa da. Esaterako, Tunisian edo Yemenen, urteko errenta nekez iristen da 800 eurora. Nazioarteko Moneta Funtsaren datuen arabera, Tunisiako BPG batez beste %5 hazi da azken hamarkadan eta Yemenen, aldiz, %4. Hazkunde horrek ez du langileen erosteko ahalmenean eragin eta, esaterako, Yemenen eguneko 9 dolarreko soldata jasotzen jarraitzen dute.

MBaren txostenak dienez, 2008ko elikagaien prezioen igoeran ez bezala, oraingoan bi faktorek galarazi dute pertsona gehiago pobrezian amiltzea: Afrikako herrialde askotan uzta bikainek prezioei egonkor eutsi diete, bereziki artoaren prezioa, oinarritzko produktua dena; eta arrozaren prezioaren igoera neurritsua izan da.

Europako Parlamentua: “%50eko espekulazioa”

Gehienek igoera prezioaren aldakortasunari eta eskaera handi-ago-

aren eta eskaintza txikiagoaren arteko desorekari egozten diote. Dena den, testuinguru honetan, elikadura krisiaren benetako arrazoia elikagaien urritasuna ala munduko “merkatu” nagusiek parte hartzen duten mundu osoko negozio honen oinarrian dagoen espekulazioa ote den hausnartzea komeni da. Ezin dugu esan Frantziako presidentea eta Europako Parlamentua ezkertiarak direnik. Bada, krisiaren erantzukizunaren %50 espekulazioari egotzi diote biek. ■



Dive Tarpoon urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

Sarea Josten ekimena

37 elkarte getxoztar euskarari tiraka

80.000 biztanle inguru ditu Getxok (Bizkaia) eta horietatik %30a dira euskaldunak. Portzentajeari begiratuta ez da kopuru handia, baina %30 hori 25.000 euskaldun dira. Horiek denak harremanetan jartzeko sortu zen 2010eko otsailean Sarea Josten ekimena.

ZIHARA ENBEITA

EUSKALTZALEEN ARTEKO harreman sarea, zelan edo halan, aurretik ere egon bazegoen Getxon, baina ezkutu, eta hori mahai gainean jartzea izan da Sarea Jostenek egin duena. Dagoenaz jabetu eta apurka-apurka sare hori indartzen eta zabaltzen joateko. Ekimen irekia, herritarra eta horizontala da sortzaileen esanetan eta 37 jostun edo elkartek osatzen dute. Tartean euskara elkarteak, kultura eta kirol arlokoak, aisialdiko taldeak, hezkuntza arlokoak, gizarte mugimenduetakoak, gaztetxeak eta baita Getxoko Udalako Euskara Zerbitzua ere. Herrian seguruenik, ez zen egongo inoiz euskarak bezala hain jende desberdina batu duen ezer.

Udalarentzat, adibidez, euskara beti izan da bere harribitxietako bat eta euskara sustatzeko egindako lana aitortu behar zaio Bizarra Lepoan Euskara Elkarteke Lander Solozabal eta Rozio Lucesen esanetan; euskara sustatzeko erabilitako moduak ikusgarriak diren edo hobeto egin daitekeen aparte utzita. “Ez dugu ahaztu behar Getxo non dagoen eta ingurura begiratzuz gero pribilegiatuak gara”, dio Solozabalek. Udalak euskara elkarteak diruz laguntzen ditu eta Lucesen ustez politikariak ere alde izateak asko errazten die bidea.

Sarea Josten eragileen arteko sare moduan sortu da, izan ere, Getxon elkartegintzak indar handia dauka. Hala ere, inongo taldetan ez dauden euskaltzaleentzat ere atea zabalik



Sarea Josten ekimenean 37 elkarte hartzen dute parte. Bazkaltzeko ere batzen dira.

daude. Azken batean herrigintzan ari dira Solozabalen esanetan: “Harreman sarea da, indar metaketa, elkar ezagutza. Oinarrian hain gauza sinplea eta era berean hain handia eta emankorra. Eta oraindik ez dugu lortu. Ez Getxon ez Euskal Herrian”.

Berbalagunen sare txiki handia

Solozabal Portugaletekoa da eta Lucen Uruguaiakoa, Montevideokoa. Orain bederatzi urte heldu ziren Getxora eta orain zazpi urte hasi ziren Bizarra Lepoan lanean. “Gu hasi ginenean, adibidez, Bizarra Lepoan eta Egizuren artean –kontuan hartuta bata bestearen

barruan dagoela— apenas zegoen harremanik”, dio Solozabalek. “Bulego berean egon arren, bakoitzak bere proiektuekin zebilen eta ez zegoen koordinazio gunerik. Ez geneukan harremanik ez UK aldizkariarekin, ez *ukberri.net* agerkariarekin, ez Koska irratiarekin, ez gaztetxeekin, ez bertso-eskolarekin... Eta harremana baldin bazegoen oso puntuala zen. Eta orain, zazpi urte eta gero, familia gara”.

Berbalagunen fenomenoak urte horietan izan duen garrantzia azpimarratu gura izan dute. Biek barrutik bizi izan dutelako. Orain zazpi urte 60 berbalagun zeuden, gaur egun, oster, 250. Gainera, Soloza-

balek uste du berbalagun gehienek harro esaten dutela berbalagunak direla eta familia handi baten partaide sentitzen direla. Sare barruko sarea ere osatzen dute berbalagunek. Izan ere, 250 horiek oso desberdinak dira, adinez zein bizimoduz.

Berbalagunei esker, aukera gehiago dago gaur egun Getxon euskaraz bizitzeko eta Solozabalek dioen moduan, “hizkuntza baten bilakaeran zazpi urte ez da ezer”. Datuek diotenez, hala ere, gero eta euskaldun gehiago dago Getxon. Areeta moduko lekuetan, adibidez, gero eta euskara gehiago entzuten dela dio Lucese, baina, “goitik beherako norabidean” batez ere. Hau da, gurasoek seme-alabekin. Gurasoen artean edo umeen artean euskara entzutea zailagoa dela dio.

Alarma gorria euskalgintzan

A ereduak indar handia dauka Getxon, ikasleen %25ak ikasten du eredu horretan, eta 2008an Alderdi Popularrak eredu horren defentsa egiteko mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran. Horrek alarma gorria piztu zuen euskalgintzan eta ALBEk (Algortako Bertso Eskola) bultzatuta, laupabost bilera-bazkari egin zituzten. Bazkari horietan euskararen inguruan lanean zebiltzarenak batzeko beharra ikusi zuten Lucesen esanetan, baina horretan geratu zen.

Iaz, oster, Bizarra Lepoanek hamabost urte bete zituen eta bazarrik ospatu beharrean, beste elkarte batzuekin batu eta jai bat egitea pentsatu zuten. Gainera, urte berean ALBEk 30 urte bete zituen, Udal Euskaltegiak 25, *Uk* aldizka-



Berba Kafean: Sarea Josten ekimenaz eta euskararen egoeraz aritu ziren hausnartzen eragileak urte hasieran.

riak hamar urte eta Egizuk (Getxo-ko hiru euskaltegiek eta Bizarra Lepoanek osatzen duten elkarte) ere beste hainbeste. Euskara faktore amankomuntzat zuten bost elkarte horiek beste hainbat elkarterekin batera ospatzea erabaki eta hortik sortu zen Sarea Josten. 30 eragilerekin hasi zen martxan ekimena, baina aurtun beste zazpi batu dira euskararen aldeko auzolanera.

“Harreman sarea da, indar metaketa, elkar ezagutza.

Oinarrian hain gauza sinplea eta era berean hain handia eta emankorra”

LANDER SOLOZABAL, BIZARRA LEPOAN-EKO KIDEA

Aurtengo ikasturteari otsailean eman diote hasiera Berba Kafearen bitartez. Word coffe metodologia erabilia sarearen inguruan eta euskararen egoeraren inguruan hausnartzeko elkartu ziren hainbat eragile. Eta bertako iritzi eta ekarpenak batuta manifestu bateratua

kaleratu dute udaberrian. Euskararen aldeko testu bateratu horrek Sarea Josten zer den, zertan dabilzan eta aurrera begira dituzten helburuak zehazten ditu. Ez da beren beregi hauteskundeei begirako manifestua izan, baina hauteskundeak baino arinago egin nahi izan dute. Izan ere, besteak beste herriko eragile zein alderdi politikoei heleraztea zen asmoa, baita herrian plazaratzea ere.

Zirimiri lana

Udan “parentesia” egingo dute, baina udagoienari begira Gure Berbakere izeneko txapelketa antolatu dute. Bestalde, Interneteko agenda bateratua martxan egongo da urrirako. Agendarena oso garrantzitsua dela deritzote. Orain elkarte, komunikabide edo talde bakoitzak bere agenda dauka eta getxoztarrek zazpi agenda desberdin jasotzen dituzte, ia-ia informazio berberarekin. Urriatik aurrera hileroko herriarrek Getxon euskaraz zer dagoen jakitea da helburua eta horrek “sare kontzientzia pizten” lagunduko duelakoan daude.

Sarea Josten oso epe luzerako proiektua dela uste du Solozabalek: “Ez gara ito behar abiaduragatik, ez gara ito behar gauza asko egin behar direlako... Hobe da zirimiri lana egitea”. Zirimiri lan horretan maila bi bereizten dituzte. Batetik kanpora begirakoa, eta bestetik, barrura begirakoa. Kanpora begirakoak ikusgarriagoak dira eta publizitate modu bat dira, baina horretarako aurretik etxeko lanak ondo egitea garrantzitsua dela uste dute. Sarea benetan jostea. Horretan ari dira kolpe, kolpe, kolpeka, josi ta josi, josi ta josi. ■

Babeslea: Getxoko Udala

Getxoko 58 kultur elkartek hartu dituzte euskararen erabilera sustatzeko konpromisoak!

Xiberoko Botza etxez etxe diru bilketan

URTEAK DIRA molde horretan egiten dutela. Xiberoko Botzako langileak eta ingurukoak etxez etxe ibiltzen dira irratia diruz laguntzeko eskatuz. Iaz 24.000 euro eman zituzten herritarrek eta

kopuru horri esker langile baten postua ordaintzeko adina diru izan dute.



Gaur egun bost langile ditu Xiberoko Botzak. Zuberoan, entzule kopuruari dagokionez, hirugarren postuan da. Bestalde, irratiko arduradunak kezkatuta daude, haien ustez Ipar Euskal Herriko euskarazko irratia biltzen dituen Euskal Irratiak federazioak zubereraz emititzen diren orduak murrizteko joera duelako.

Saltokiak zigortu, bai ala ez

PSE-EEK ETA UPDK Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen garapen dekretua indarrean ez jartzea proposatu

dute. 2008an zehaztutako araua uztailaren 17an da indarrean jartzekoa, baldin eta bi alderdi horien proposamenak aurrera egiten ez badu. Dekretuak isunak aurreikusten ditu hizkuntza eginbeharrak betetzen ez dituzten enpresa eta saltokientzat. 3.000 eta 600.000 euro arteko zigorrak izan daitezke, euskara-baldintzak ez betetzearen.

Kontseiluak 27 enpresa aztertu ditu ikusteko ea arauak esaten dituen hizkuntza baldintzak betetzen dituzten. Bada, horietatik hamaseik ez dituzte Kontsumitzaileen Estatutuaren helburuak betetzen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Toni Mollák gipuzkoaeuskara.net-en esanak: "Gai hori [mundu globalizatuan hizkuntzak ikastea] izan genuen hizpide duela aste batzuk ahozko ingeles eskola batean Providencen (Rhode Island, AEB). Japoniar batek bere ustez txistea zen honako hau azaldu zigun: 'Bi hizkuntza hitz egiten dituen elebiduna da, ezta?', baiezatu/galdetu zuen Nobuk. 'Hiru hizkuntza hitz egiten dituen, hirueleduna. Eta hizkuntza bakarra hitz egiten duenari, nola esaten zaio?', galdetu zuen jarraian. 'Estatubatuarral', erantzun zion bere buruari barre algaraka. 'Edo espainiarra', erantzun nion nik; eta, jarri zuen aurpegia ikusita, ez zuela txistea harraipatu iruditu zitzaidan".

Erramun Osak Deian esanak selektibitateko Kimikako azterketan egindako hanka-sartzea dela-eta: "Hezkuntza arautuan (...) hamaika profesional euskaratik euskarara lan egiteko gai direnean, ezin esplikatu daiteke selektibitateko probetan gaztelaniazko testu bat oinarritzat hartzea eta euskarara itzuli behar izatea. Menpekotasun hori mantentzeko ez dago inolako arrazoibiderik".

TALAIAN

Gaindegia, Euskal Herriarentzako tresna

Euskal Herriko eraikuntza sozialak eta nazionalak, bere jakintza eta eraldaketarako balioko diguten tresnak behar ditu. Hainbat administrazioen menpean egonik —espainiarra, frantsesa eta europarra...— eta baita Hegoaldean bi administrazioz bananduta egonik ere —EAE eta Nafarroa—, Euskal Herriak ez du, salbuespenak salbuespen, berezko nazio egitura instituzionalik. Eta gure herrialdea antolatze beharrezkoak dira egitura horiek. Norabide horretara bideratu beharko lirateke gure ahalegin guztiak, baita euskal gizarte osoarenak ere. Ahalegin horiek tresna egokiak eskatzen dituzte, egitura nazionalak lortu ahal izateko.

Testuinguru horretan, nabarmentzen da Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako behategia, Gaindegia. Umiltasunez, baina duintasunez eta lana ondo eginez gainera, zailtasunak izan arren, jadanik bost urte bete ditu. Gaindegia autonomiaren adibide da, bere funtzionamenduari, aniztasunari, profesionaltasunari eta zorrotasun intelektualari dagokionez. Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko, aztertzeko eta irudikatze beharrezko tresna eskaintzen du Gaindegia. Ezinbestekoa da gure gizarte eraldatzeko. Horregatik, zailtasun instituzional eta ekonomikoak dituen arren, aitortu eta txalotu behar da egunero-egunero Euskal Herri osoaren argazki sozioekonomikoa hobetzeko egiten duen ahalegina.

Hor kokatu behar da berrikitan argitaratu duen *Txostena 2010 Gaindegia* —laugarrena jadanik—. Bertan, Euskal Herriko adierazle sozioekonomikoen analisi zehatz eta profesionala egiten du. Bidezkoa eta beharrezkoa litzateke euskal erakundeek —publikoek eta pribatuak—, baita euskal herritarrek ere, Gaindegia babestea modu batera edo bestera, laguntza ekonomikoa barne. Euskal Herriko interes sozial eta nazionalen zerbitzura dagoen tresna baita.

Juan Mari Arregi

M15-eko horiek

ARRAKASTA izateko gizartearen aurrean, gutxien-gutxieneko oinarri batzuk behar dira: ideia batzuk izatea, gutxieneko antolaketa bat eta, bistan da, herritar askoren sostengua edo, gutxienez, ulermena. Hirurak ditu Espainian garatu den M15eko mugimenduak eta, oztopoak oztopo eta arazoak arazo, horrexegatik ari da izaten arrakastatsu. Oraingoz behintzat. Baina ez ei zaio asko geratzen: asanblearioa da, botereak maneia dezake –biolentoa da... edo bakezaleegia–, sortzez garbia bezain inuzentea, ez da errealista, utopikoegia, sistematik kanpo dago, atomizatuégia... Horiek guztiak eta gehiago izan daitezke bere ahulda-deetakoak, zalantza barik, baina horietako ezaugarri askotan dira bere indar guneak ere.

Gure lurretatik so ez da ohikoa, baina oraingoan hegoak freskura dakar. 2011ko maiatzak freskura ekarri du Hegoaldera, eta haserre, sumindura, harridura... hori guztia bai, eta nagusiki ez haserre-tuen mugimenduagatik hain zuzen. Baina baita horregatik ere. Eta kontua da Arriagan edo Gazteluko Plazan biltzen diren horiek ez daudela haserre Arnaldo Otegi espetxean delako, euskararen egoeragatik edo Fukushima eta Garoñako zentralen egoeragatik... Edo akaso bai, batek daki, baina biltzen dituen ez da hori: haserre daude lanik ez dutelako, edo izango ez dutelako, haserre diruaren jopu diren agintariekin, haserre etorkizun eza-rekin, Euroaren Itunarekin... Iazko ekainaren 29an edo aurtengo urtarri-laren 27an greba orokorrean Euskal Herriko kaleetara atera ziren haserre-tuen antzera; orain Espainian greba orokorra deitzen duten haserre-tuen antzera.



M15-arekin lotutako mobilizazio bat.

HILAREN 17-AN 20 bat minutuz izan nintzen Iruñeko Gazteluko Plazako haserre-tuen batzarrean. "Politikariak ere borondate onenarekin ari dira, hori bai beren logikarekin, haiek ez dira gure etsaiak" zioen gazte batek, baina ez zuen esku jira-birarik eragin edo bakarren batzuk, ia ez dago txalotzen ez den partehartzerik eta. Hurrengoan beste gazte batek zehatz-mehatz eta kalitatez azaldu zuen beren enpresan lan hitzarmena negoziatzeko nola ari diren borrokan, eta hori Euroaren Itunarekin lotuz gainera. Denetik entzuteko aukera du gisa honetako batzar anitz eta jendetsuetan dagoenak, barregarrietik jasoenera.

Eta beldurrik gabe eta ilusioz kalera atera diren gazte eta ez hain gazte horiek, badute beren protesta bizitza laburraz harro egoteko arrazoirik... ezer gehiago egin gabe ere egungo demokrazia formal eta erabat defizitarioaren mahaian ukabilkada itzela jo dutelako, eta jo duten moduan jo dutelako. Baina itxura guztien arabera, hau gehiagora ere joango da, besteak beste krisiak oraindik astindu handiak emango dituelako; besteak beste, seguruenik, 2007ko egoera ekonomikora inoiz itzuliko ez garelako.

Eta noraino hel daiteke M15eko hau? Batek daki, edo agian susma genezake, listoenek egiten duten gisan iraultza eta erreformaren artean geratuko dela iragarriko diot. 1917az geroztik Europan gizartea errotik aldatu gura izan duten mugimendu gehientsuenak bezala. Mundu honetan benetako aldaketak garesti daude, euskaldunentzat, greziarrentzat, egiptoarrentzat eta baita Madrilgo Sol-eko gazteentzat ere.

HARRO eta tentuz ibiltzeko arrazoirik ere badute gazte eta ez hain gazte horiek: mugimendu izatetik parlamenturako bidea eskatuko baitiete demokrata zintzoenek; eta egiazko iraultza, muturrekoenek. Barrutik ere herritarren begirunea eta arbuioa non dagoen asmatu beharko dute: Bartzelonako Legebiltzarrekoa iritzi publikoaren arbuio-onarpen horretatik oso ertzean zegoen. Funtsean, betikoa-gatik dutela gaitza: askotarikoak direlako, denbora gutxian eta ezinbestean asmatu behar dutelako –begi guztiak gainean dituztenean gainera– eta nahi duenak basoa ikusi beharrean beti zuhaitza ikusten duelako.

Eta hala ere, beti geratuko dira zientziari ere argi-gaitz zaizkion misterioak. Esate batera: Diario de Navarrak espazio zabal eta tratamendu egokia eskaintzea joan den igandeko Iruñeko manifestazioari, Gazteluko Plazako bukaerako ekitaldiko hitzaldia lehenengo euskaraz izan zenean eta bertan euskarazko leloak ere aieratu zirenean. Eta hala ere beti geratuko da esperantza eta aliantzatarako aukera, hainbeste bestelako nahi dituzten hainbesterentzat.

PELLO ZUBIRIA

Fukushimak 100 egun beranduago irakiten darrai

Arnie Gundersen energia atomikoan aditu eta aholkulariak grafikoki esplikatu du egoera: Fukushima Daiichiko lau errektore eta piszinetako batean, gutxienez, txingarrak gori daude eta tarteka sutzen dira. Hasieran jaurtitako kutsadura barreiatuz doa munduan, kutsadura gehiago isurtzen da... baina, batez ere, ongi erreparatu 4. unitateari.

ESTRONTZIOA AURKITU OMEN DUTE Fukushima inguruetan”, argitaratu dute egunkariak ekainaren 13an eta beste lauzpabost egunez ez duzu hango berri gehiago izanen. Hedabide handietako zuzendariek arrazoi dute: estrontzioak ez du ematen ez irudi deigarrik, ez mahai-inguru trumoiak antolatzen mamirik.

Txernobylekoa bezala Fukushima baten gertakizun historikoa dela sinetsirik honen jarraipena egin nahi duenak Interneten dauka iturriak. Ez eguneroko anekdotak, hori baita errazena gaur hainbeste *Twitter* eta ixtoriorekin, informazioa ondo murtzikatuta eskaintzen duten galbaheen emaria baizik.

Hauetako bat da *Greenaction* erakundeak Japoniakoaren jarraipena egiteko sortu duen zerbitzua (*fukushima.greenaction-japan.org*), ingelesez bertako militanteek elikatua, sarritan japonierazko dokumentuak itzuliz. Iturri ezin hobea da lekuan bertan erradioaktibitatearekin borrokan bizi den gizarte baten tenperatura neurtzeko: erradiazioen neurketak egiten dituzten pertsona eta talde independenteak, haurren osasuna defendatzeko mobilizatzen diren gurasoak...

Frantsesez irakurtzeko gai denak ondo egingo du Kokopelli elkartearen bloga (*www.kokopelli-blog.org*) egunero ikuskatuta. Bioaniztasuna eta ortuetako baratzeen hazi paten-

terik gabeak defendatzen dituen elkarte frantses honetako militanteek serio hartu dute Fukushimakoak sortu informazioa biltzea, albiste nagusiak, iturriak, analisiak eta erreferentziak.

Krisi atomikoak ezagutarazi dizkigun jakitunen artean balio du aipatzea Arnie Gundersen, emazte Margaret Maggierekin batera *Fairewinds Associates* aholku agentzia kudeatzen duena. 25 urtez egin zuen lan zentral nuklearretan, harik eta kanporatu zuten arte salatu zituelako ikusitako segurtasun arazoak. Geroztik, erakundeei eta talde antinuklearrei aholkuak emateaz gain, Fisika eta Matematikak irakatsi ditu.

Zerbait izatekotan Gundersen, jakintsuaz gain, komunikatzaile ona da. *www.fairewinds.com* blogean idazteko ordezkari bidez eskaintzen ditu hitzaldi laburrak, oso xehe azalduz zentral nuklearren gorabehera teknikoak. Webgunean eskaintzen dituzten agiriaren azkenetakoa da Chris Martenson-ek, hau ere aholkularia, egin dion elkarrizketa, entzun eta irakur daitekeena.

“Fukushimakoaren arriskuak uste duguna baino larriagoak dira eta luzaroago iraunen dute” titulua darman elkarrizketan Gundersenek laburbildu du egoera, eta gomendio oso praktikoak eman erradiazioak eragindako jendeei.

Argazki txikian, Arnold Gundersen energia nuklearrean aditua. Honen ustetan, herritarrek arreta handia jarri behar diete partikulei, arnashideetatik eta janarien bidez erraz barneratu ditzakete-nei. Irudi handian ikusten dira Fukushima Daiichi zentralako 4. unitateak, kezkarik handienak sortzen dituenak, barrutik dauzkan txikizioak. Besteak bezala hau ezingo dute hormigoiz estali, honi eraikin bereziren bat altxa beharko diote inguruan ondoren erregeaia usatu berriak hustu ahal izateko, orain aire librean dauzka eta. “Tokyoko lagunei esaten diet –dio Gundersenek– ondo erreparatzeko 4. unitate honi. Lurrikara berri batekin eraikin hau hondoratzen bada, ez sinetsi agintariei, jakin ezazu zientziak inoiz kalkulatu duenetik harago zaudela, abioia hartu eta alde egiteko ordua dela”.

Hona lau errektoreen gaurko egoera. 1. eta 2. errektoreek 70 zulo inguru dauzkate. Barnean dituzten erregai urtuak urez hozten saiatu dira, baina hala ere barruan 2.700 ° ko beroa eduki behar dute. “Horiek ez dira errektoreak, presioko eltzeak dira”. Goitik ura bota ahala azpitik ateratzen zaie, barruan dau den uranioa, plutonioa, zesioa eta estrontzioa ukituta, erradioaktibitate inguruan zabalduz.

Txernobylgoa baino okerragoa

3. unitateko erregeaia ez dakigu ziur urtu den ala ez, agian zati bat osorik dago. Baina bada seinale txar bat: inguruetan behin eta berriro iodo asko aurkitzen denez, pentsatu behar da edo 3. unitatean edo erregai usatua dagoen lau piszinetakoren batean tarteka erreakzioa “berpiztu” egiten dela; edozein suteraren ondoren errautsen azpiko pindarrekin gertatzen den gisan. Gundersenen aburuz, 3. unitateko errektorean erregeaiaren hamarrena ari da “arnaska”, orain sutu, orain amatatu.

Arriskua badago, ez estatistikoki handia baina, 3. unitatearen azpialdea erabat hondoratu eta lehen gertatu zitzaion bezala berriro hidrogenozko leherketa eragiteko. Horrez gain, kezkarik handiena 4. unitateak ematen dio. Tsunamia jazo zenean geldialdi teknikoan zegoen, baina



zenbatzen dituzte ingurumenean diren alfa, beta eta gamma izpiak. Baina gizakiak arnasarekin barneratu dituen 10 mikrometroko [mikrometroa = 0,001 milimetroa] partikulak ez dira kontrolatzen eta horiek biriketetan, gibelean, hezurretan edo giharretan instalatuta egin ditzaketan kalteak izugarriak dira.

Japoniako herritarrei, -AEBetako Itsas Barearen ertzean bizi direnei ere bai, 4. unitatea sutzen bada- gomendio zehatzak eman dizkie Gundersenek: oinetakoak etxera ez sartu, etxeetan haizea garbitzeko HEPA filtroak erosi (hegazkintan eta usatzen direnak), aire egokitua- ren filtroak sarri aldatu, etxe edo bulegoetakoak bezala autoetakoak... Ez ireki leihoak etxeko airea ber- ritzeko, kanpoan partikulak dabilta.

Japoniarrek erne jokatu behar omen lukete esnekiekin, behiek iodi- na pilatzen dutelako, hasierako hiru hilabeteetan. Barazkiak ondo garbi- tu, noski. Baina batik bat kasu eman arrainari, jatekotan Japoniako itsaso- koa bai (Txina aldera daukatena) baina ez Itsas Barekoa, ez behintzat Fukushima- tik 100 mila baino urru- tiago harrapatua ez bada.

Arrainek barreiatuko dute Fukus- himako erradioaktibitatea nagusiki, pixkanaka: arrain txikiz elikatzen diren handiagoek partikulak pilatze- ko denbora behar dute. Zesioa mamian, estrontzioa hezurretan. Atunak joko digu alarma nonbait, beranduago, 2013 aldean, migrazioz AEBetako kostara hurbildu ahala.

Hori dena gutxi balitz, martxoko lurrikarak oihartzuna eduki lezake laster. Oraindik askotan hitz egin behar dugu Fukushima-koaz ■

bere erregai guztia gaineko piszina- n ipini berria zeukaten; beraz, inolako babesik gabe. Hori da orain lanjerrik handiena Gundersenentzako, piszi- nako erregai horrek su hartuko balu airera jaurtiko lukeelako plutonioa, uranioa, zesioa eta estrontzioa.

Gundersenek eta beste zenbait jakitunek uste dute Fukushima-ko dagoeneko Txernobyngo baino okerragoa dela. Lehen bi-hiru aste- tan sekulako erradiazio pila aieratu zuen, haizeak itsasotik lehorrera jo izan balu Japonia belauniko ipiniko zuena. Geroztik haizeak aldatu dira eta "zientzia inoiz heldu ez den eremu batean gabiltz, erregai nuklea- rra zoruan eta berotzen, hau inoiz inork kalkulatu gabeko egoera zen". Horregatik garbi gomendatu die

Tokion dituen lagunei: 4. unitatea hondoratzen dela ikusten baduzue, egin ihes azkar. Denek ezingo dute.

Lehen asteetako kopuruetan ez izanik ere, Fukushima-ko zentrala oraindik erradiazioa isurtzen ari da, batik bat zesioa eta estrontzioa. Hozteko ahaleaginean usatutako ehundaka mila tona ur erradioaktibo daude, filtratzen oso zailak. Barruan langileak baldintza ikaragarrietan ari dira lanean. AEBetan langile bati bost urterako onartzen zaion gehie- nezko erradiazioa Fukushima- n 10 minututan hartzen dute. Horietako askok edukiko dute minbizia.

Inguruan barreiatutako kutsadu- rari dagokionez, Gundersen nagusi- ki partikulez dago kezkatua. Erradia- zioaz egiten diren neurketek





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Santi Leone

Kezkak

Mariano Raxoi Alderdi Popularreko presidenteak solemne-solemne adierazi du ez duela gauza onik espero Donostiako alkatearengandik. Tira, eskubide oso-oso du bere iritzia adierazteko. Nik ere, adibidez, ez dut gauza onik espero Iruñeko alkatearengandik. Susmoa dut, halere, Bilduren ustezko zilegitasun falta nabarmendu nahian erran zuela Raxoik erran zuena.

Bildu hauteskundeetara ailegatu izana eztabaidagai izan dute Espainiako zenbait telebistatan: ona ote den, zer dela-eta lortu duten lortu duten arrakasta, zer gertatuko ote den Donostian (kazetari guziek ez dute apokalipsia baztertzen). Egunkarietan, lerro-buru handietan eman dute Bilduren emaitzen berri. Bilatuz gero, ordea, erraz aurki genitzake balizko bertze mintzagai batzuk: *Público* kazetaren arabera, hauteskunde hauetan (Bilduko ez diren) aukeraturiko ehun kargudun –zinegotzi, alkate, parlamentari– ingururi ustelkeria delituren bat leporatzen zaie; epaileek ez dituzte oraindik errugabe edo erruduntzat jo, alegia. Bitxia da, baina ez dut horri buruzko eztabaidarik ikusi telebistan.

Eskuineko telebista batean, Maria San Gilek bere kezka azaldu zuen abertzaletasunak eskuratu dituen emaitzak ikusita. Bere kezka eta bere haserre. ETari nahi-taezko erreferentzia eginagatik, argi samar gelditu zen jende anitzek botoa abertzaleei eman izanak kezkatzen duela San Gil, bertze edozerk baino gehiago. Ondoan zituen hiru kazetariak, lerdea litroka zeriela, bat egin zuten San Gilen ikuspuntuarekin. Valentzia aldean, ustelkeriaz lepo egon arren, Castellonen hegazkinik ez duen aireportu bat eraiki arren, Alderdi Popularrak inoizko emaitza hobereak lortu ditu. Valentziako hori, alabaina, ez bide da kezka iturri.

Xelebrea, benetan, batzuen pentsamoldea. Bilduk Donostian egin lezakeena kezkagarriago da bertze



JOSU SANTESTEBAN

batzuek egin dutena eta egiten segituko dutena baino. Auzitegi Konstituzionalak Bildu errugabetzat jo eta horren zerrendak onartu zituen; PPko eta PSOEko zenbait hautagairen errugabetasuna ikusteko dago oraindik. Haatik, zenbaiten ustez, Bildu bozkatzeak egiten dio kalte demokrasiari; Camps eta Fabra bezalakoei botoa ematea, ordea, demokrazia honen osasunaren erakusgarri da nonbait.

Edonola ere, iduri du normalizazio bidean gabiltzala. Poliki-poliki, Bildu Esquerra Republicanak Kataluniari buruzko debateetan duen papera hartzen ari da euskal politikari buruzkoetan. Edo paper hori ari zaizkio ematen. Hemendik aitzinat, Bilduren aitzakian, polizia onarena eta gaiztoarena egiten ahalko dute tertulietan. Polizia gaiztoak Bildu ETaren mundutik datorrela gogoraraziko du behin eta berriz, eta, beraz, baztertzekoa dela. Polizia onak, berriz, Bilduk independentismoa ordezkatzeko duela erranen du, eta gaineratuko du independentismoarekin ados egon ez arren, aukera hori errespetatu egin behar dela (eta ondoren, kasik deus erranen ez balu bezala, alde onak eta txarrak kontuan hartuta, Euskadin bi “alderdi handien” arteko hitzarmen baten alde agertuko da).

Independentismoa, Espainiaren ikuspuntutik, eritasun bat izanen da. Ozenki salatzekoa, edo isilka-misilka sendatzekoa, baina eritasuna. Horregatik, nik ere San Gilen kezka daukat; Donostian zer gertatu-


ko ote den, alegia. Baina, San Gilek ez bezala, eta Raxoik ez bezala, nik gauza onak espero ditudalako Donostiako alkatearengandik. Egingen duen politikan asmatzea nahiko nukeelako.

Irrati batean, Carlos Iturgaitzek aipatu zuen euskal herritarrek kezka normalak dituztela: lan egin, dirua irabazi, Mediterraneora oporretan joan... Nahiago nuke hala balitz. Momentuz, nire kezka ez-normal horrekina segituko dut. Ea eritasuna izurrite bihurtzen den. ■

«
Independentismoa, Espainiaren ikuspuntutik,
eritasun bat izanen da. Horregatik, nik ere
San Gilen kezka daukat; Donostian
zer gertatuko ote den, alegia. Baina,
San Gilek ez bezala, eta Raxoik ez bezala,
nik gauza onak espero ditudalako
Donostiako alkatearengandik. Egingen duen
politikan asmatzea nahiko nukeelako
»

ASTE HONETAKO

zozketa



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA
www.ibernalorural.com

1



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2280. Argia)

TXONDORRA jatetxea

- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Fernando Ramirez Sanchez-paniagua (Bilbo)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Miren Josune Ugarte Epelde (Bilbo)

KIROLAZ BADAKIT

- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Jose Mari Goiburu (Donostia)
- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
- Jon Caballero Gomez (Irun)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
© 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

